

600 pezeta  
24 libera

# hik hasi

euskal  
heziketarako  
aldizkaria

30

1998ko UZTAILA

## Baloreak irakaskuntzan

3. monografikoa

# Indarkeria eta balio berrien bilaketa

Balioen kontuak non du gaur egun aipurik gehienak? Uste dut ez dagoela duda handirik: biolentziaren inguruan.



**Joxe AZURMENDI**  
Filosofia Fakultatea  
Euskal Herriko Unibertsitatea

**B**alioak garrantzizkoak bilakatu dira.

Zeinentzat? Itxuraz, guztiontzat: mundu guztia ari baita balioak gora eta balioak behera. Zinez eta egiaz, ez dakit zeinentzat. Ez nago behintzat seguruegi.

Hasteko, aitortu beharra daukat ni neu nahikoa deseroso sentitzen naizela gai honetan. Ez dakit oso ongi zer diren balioak, nondik etortzen diren, nora joaten diren, ez zeinentzako, ez zertarako diren inportanteak. Ja ezer ez daukat oso garbi. Eta deserosotasun honetatik arituko natzaizue. Arazo honen inguruko nire zalantza, insegurtasun eta laino guztietatik, alegia.

Egia esateko, askotan izaten dut susmoa, balioak goraki aipatuz azpitik morala sartu nahi izaten zaigula mozorropean, eta horrek oso inkomodo sentiarazten nau. Operazio guztia horixe besterik ez dela iruditzen zait. Eta ez edozein moral sartu ere, moral oso konkretu bat baizik. Betiko moral tradizionala trapu berriekin hain zuzen. Frankismo berriua besterik ez, beharbada. Izan ere, gazteek ez omen dute moralaren konturik entzun nahi eta, "balioen krisi larri bat bizi dugu" esaten da orduan. Hau entzungarriago eta modernoagoa egiten da eliz kutsuko "morala krisian dago" baino. Eta horrela, "balioak galdu dira" edo "gazteek ez dituzte eza-gutzen balioak" esanez, gizartea herts-i-herts-i lotzen zuen "betiko" ordena zahar hura galdu egin dela deitoratzen dute; gazteak lehengo manera jatorrean berriro diziplinatu beharra dagoela esan gura da funtsean eta ordua dela gure kale-etan eta eskoletan ordena berriro gogor ezartzeko. Hori oso ondo ikusten da balio konkretu batzuen erabileran: tolerantziarenean, adibidez. (Tolerantzia beti izan da diferentziaren eta "desordenaren" babeserako printzipioa. Orain berriz, ordenaren defentsan erabiltzen da, ordenak, bestela ere, nahikoa defentsa ez balu bezala gure artean).

Bestalde, ezbairik gabe balioak garrantzizkoak bilakatu dira egungo gizartean baina are garrantzizkoagoak dirudite Bote-rearentzat eta haren sostengu eta abokatuentzat. Hori bitxia da. Balioen krisia edo balioen erre-bindikazioa diskurtso filosofikoan edo erlijiosoan baino gehiago, politikoan ikusten da gaur. Sintomatikoa, ezta? Gauza askoren sintoma izan ere. Ez dut ukatuko, jasaten ari garen krisi politikoaren sakontasunaren sintoma ere badela. Baina kontzientzien barneraino sartzeko, haien jabetzeko eta manipulatzeko Botereak egiten duen egungo ahalegin amorratuarena ere bai. Estatuaren aldeko Kontzientziak inbaditzeko grina hau beti egon bada ere, gizarte modernoan, azken denboran beharrezko balio sano eta demokratikoen izenean egiten ari diren beharrezkoen inposaketa agresibo ikaragarri lotsagabetu dela gure artean esango nuke, horretarako ikus-entzunezko hedabideen eta masa mobilizazio erraldoiaren laguntzaz baliatuz.

### Erlatibismoaren mamua

Orain tinko egon beharra dago balioetan. Hori dio diskurtso ofi-

zialak; demokrata guztien eta espainol "ongi jai" guztien diskurtsoak. Horrela esaten digute egunotan bere buru dudatsuen ebaluazio segurua egiteko, bera ez besteak putakumeak kontsideratu beharra daukan demokrata jende zintzo horrek. Oroz gain, balioak gora, horratx gure bandera. Hemen ez dago kontu horietan gehiegi jakiterik, ez gurutzada santuetatik albora geratu nahiago izaterik, ezta zalantzak edukitzerik ere. Ziurtasun absolutuak eta kasernariak bakarrik toleratzen dira. Adibidez, Joseba Zulaikak azterketa bat egin zuen euskal biolentziaren fenomenoan antropologikoki ulertu nahirik, zein tes-tuinguru sozial eta kulturaletan gertatu den, zein esanahi sinboliko duen eta abar. Seguru asko Zulaikaren ikerketari modu askotako kritika egitea zen posible; baina hain justu ezposibleena egin diote, nik uste. Hots, balioen erlatibismoa suposatzen duela, ez duela indarkeria aski kondena-tzen. Antropologikoki ulertzea, ez da nonbait ulertzea. Ikerketaren zeregina ez da azaltzea, kondena-tzea baizik. Beste kasu bat: norbaitek idatzi du historian zehar sistema bakoitzak bere



balioen legitimazio eta deslegitimazio araudia izaten duela (indargintzaren legitimazio eta deslegitimazioena barne), araudi horrek sistemaren barruan eta sistemaren presupostuekin koherentzian barririk balio duela sistematik kanpora araudi guztiek balio erlatibo bera izaki<sup>1</sup>. (Esate baterako kristautasunean bai eta paganismoan ez, edo bai Japoniako samuraien kode moralean eta ez monje budista batenean). Benetan hori baino gauza ageriago eta sinpleagorik esatea ez dakit ba ote zegoen, edo, nahi bada, demokratikoa go eta modernoagorik. Baina beren ustez demokraziaren zaindari diren superdemokrata batzuek hor ez dute (liburuan baze goen zer aukeratu aproposagorik, hori bilatzen bazuten) faxismoaren apologia eta "planteamientos totalitarios de un ideólogo abertzale" baizik irakurri ahal edo nahi izan<sup>2</sup>. Lehenago demokraziaren batek "le fanatisme parle basque" esan bazuen, bada, gaur "fanatismoa demokratez mintzo da" esan beharko dugu.

Beraz, nahikoa eszeptiko eta ikusliar nago balioen komedia honetan guztian. Eta, aldi berean, aitortzen dut, balioen birgogoeta bat inportantea litzatekeela egun, eta gehiago Euskal Herrian.

Ez da balioen martzialtasuna mundu guztian publikoki exijitze hori bakarrik balioen eztabaidan eszeptiko jartzen zaituena. Batek ezin du ulertu gaur balioen erlatibismoa aitortzeak ETaren indargintzaren alde gehiago egiten duen haren kontra baino. Eta alderantzia ere ez da ulertzen nola, atzo, autore horietako batzuen ustez bederen (ez baita aspaldi, "postmodernoenak" berriak agertzen zirela) balioen erlatibismoak justu indarkeria haren

kontra balio nahi zuen, berriak uste zuten. Printzipioz, bortxa praktikatu eta justifikatu balio absolutuekin eta balio erlatiboekin berdintsu egin daiteke, dirudenez. Txit razionalki egin ere. Antza ordea, ETArekin obsesiozaturik bizi diren intelektual batzuk erlatibistak badira, ETakoak derrigor absolutistak izan behar dutela pentsatzen dute; eta berriak burdinazko balio moral ziu rren apostoluak direnean, balioen erlatibismoa ETaren apologia dela ulertzen dizute. Baina ez daukate zertan bata bestearen eskutik joan, geuk a priori halaxe joan beharra daukatela erabakita ez badaukagu behintzat. Aitzitik, krisi handien garaietako baldintza paradoxal bat da, nonbait (teorian edo intelektualki) zalantzek eta zuhurtasunak adina agintzen dietela izpirituei gotortasunak eta sendotasunak (ekimen edo praktikan). Bi esfera hauek etengabe nahastu egin nahi izaten direla ikusten dugu ordea. Ekintzaile erradikal batek nahitaz dogmatiko bat izan behar duela sinestara zi nahi izaten zaigu. Eta ez dauka zertan izan behar. Descartes ezbairen maisua bezala ezagutzen dugu. Intelektualki edozertaz eta guztiaz zalantza egin behar dela beti, zioen. Hark ekintzan edo biziera praktikoa ez zuen aiko maikorik txikiena ere onartzen damua bera belaxkeriatzat gaitzesteraino. Ekintzak zeharo tin koa izan behar du. Haren behin behineko moral edo "anarteko moralaren" bigarren arauak ekintzaren orduan enura guztiak baztertera utzi eta determinatuki aritzeko agintzen du. Absolutua ez da hartu den erabakiaren aldeko arrazoia (dudagarria) hartutako bidea segitzeko deliberoa baino<sup>3</sup>. Beraz, ez dut ikusten ekintza erra-

dikal bat pentsamendu dogmatiko batekin identifikatu behar denaren zergatia. Orobat balio denak erlatiboak direla esanez inork ez du esaten dena berdin dionik, edozer gauza egitea libre dagoenik munduan, dena bost axola eta biba indarkeria. Horrelako zerbait Dostoiievskik pentsa zezakeen apika, guk ez. Eta ezta ere dena erlatiboa bada absurdua da borrokan ibiltzea, goazen guztiok dantzara. Laburtuz, balioak absolutuak ala erlatiboak direneko eztabaidak eta iritziak ez dauka zerikusirik bortxaren legitimazio edo deslegitimazio razionalaren arazoarekin. Bai apika, biolentziaren arazoari soluzio bat bilatzearen eta bilatzeko izpiritu edo dispozizioaren arazoarekin! Seguruenik, balioak absolutuak bilatzen dituenak, antzekoak bilatuko ditu soluzio-moduak ere. Bitartean, gaudenean gaudela, hainbeste filosofo, kazetari eta politikoko moral-irakasle kalakari rekin, jeneralean madarikazioa dariela, nola ez egon eszeptiko balioen kontuari buruz!

Arrazoiak era askotakoak daude eszeptizismoaren alde arazo honetan. Eta halako beste bat esperientzia filosofikoa bera da. Gure garaian ikasten genuenez, Grezian balio guztien erlatibismoa irakasten zuten sofista ganorabako haiek denak, behiala garaitu zituen Platon zangarrak. Hark ezarri ditu sendo bere lekuan betiko Egia eternoa eta azkeneko Ongia, mendebaleko kultura eta zientziako razionalitatearen harroin metafisikoak. Gero, Platonez eta platonismoaz ez hain seguru ibiltzen ikasi behar izan dugu eta metafisikari, isil-isilik, agur esan diogu, bere Ideia eterno guztiekien eta Ongi absolutuarekin. Halere, barru-barruan, sofistikoko susmo

txar sakon bat barru-barruan geratu zait betiere neuri; eta ez prezeski Greziako sofista mutiri haienganako, haien kazetetako kopia komertzial hauekiko baino, oraingo sofista postmoderno hauenganako, balio oro erlatibo da beraz, balio oro berdin da ulertzen dutenekiko, alegia. Uste den baino gehiago baitira horiek. Eta askotan uste horrexekin berdindu nahi izaten digute demokrazia. Sofista grekoek balio orenen erlatibotasunetik, diskurtsoaren eta erretorikaren garrantzia ondorioztatzen zuten, Platonek balioen hierarkia esentzialetik logikaren eta metafisikaren garrantzia ondorioztatu duen bezala. Sofistentzat erabakiorra ez zen nork duen balio edo egia hobia (ez baitago bat bestea baino hoberik, "berez"), baizik zeinek zuen besteak konbentzitzeko diskurtso hobia. Horregatik demokraziako zientziarik inportanteena erretorika izan zen. Platonek horren alde borrokatu zuen bere Akademian dialektika irakatsiz. Baina gaur, sofista greko batek sekula egingo ez zuen moduan arrazoitzen da askotan. Arrazoi denak eztabaidagarriak dira (erlatiboak, beraz); garrantzizkoa diskurtsoa da, alegia, de facto garrantzizkoa da zeinek prentsa eta ikus-entzunezko hedabideak eta propaganda dominatu, gehiengo irabazi ahal izateko. Honela, balioak erlatiboak izatea balioak ezer ez izatea bihurtzen da eta ez diskurtsoa dena izatea diskurtsoa ere ezer ez izatea baizik, eta medioak eta medioen kontrola edukitzea dena izatea. Postura "demokratiko" horrekin ere, ez ote da zilegi izango eszeptiko samarrak egotea?

Demokrazia modernoak, zientzia modernoak bezala, kriterio matematikoekin ebatzi nahi iza-

ten ditu lege naturalenak adina lege sozialen auziak. Balio eta arrazoen arteko gatazkan erabakitzeke balio eta arrazoen arteko kanpoko instantzia bat hartzen da, matematikoa eta itxuraz (moralki) neutrala dena: gehiengo. Eta gehiengoaren printzipioa, nork ukatu!, oso inportantea da, baina bere alorrean da inportantea: eraketa sozialaren alorrean hain zuzen (zeinen esku laga administrazioa, Gobernuak, zeinenean haren kontrola, eta abar). Aldiz, gehiengoak ezin liezaioke inori ez arrazoirik eman eta ez kendu, ez egiarik oinarritu, ez baliorik legitimatu ezta deslegitimatatu ere.

Ausart gaitzen, bada, eszeptikoki bada ere "geure buruaz pentsatzen" Kant gutxi eta gaizki ezagutzen dutenek Kanti esanarazi ohi diotenez<sup>4</sup>, edo "ausart gaitzen ulertzen" Ilustrazio berri bat galdatuz Nietzsche hisiatu den legez. Balioen krisia deitu ohi dena egiaz krisi sozial, kultural, politiko, etiko konplexu bat da. Aurrena, tradizioaren krisia errealitate bat da; beste era batera "mendebaleko kulturaren" edo modernitatearen krisia ere deitu ohi dena. Euskal Herrian krisi horrek ezaugarri guztiz berezi bat du gaur, balioen arazoa are larriago bihurtzen duena: indarkeria politikoa, non interpretazioen arabera gatazka politiko bat, batzuentzat balio sistema ezberdinen artekoa, beste batzuentzat moralaren eta moralgabeziaren arteko gatazka bezala ageri baita.

### Status quaestionis

Horregatik balioen arazoa larri-larria bilakatu da gure gizartean; eta horregatixe, Botereak eskuan hartu duen eta bizitza publikoan inflazio jasangaitz bat ikusten ari



den arazoa bilakatu da, hain zuzen ere. Gizartea manipulatzeko eta kontrolatzeko Botereak duen tresna eraginkorrenetako bat eskola edo hezkuntza da. Eta gu horren funtzionariak.

Indarkeriaren aurka, Botereak poliziaz eta errepresioz adina, balio absolutuen harresiz, kontzientzien kontrolez, nahi izaten du ongi babestua eduki bere burua. Eta balio berez edo tradizionalki absoluturik kulturaren (demokratikoan) de facto aurkitzen ez badu, absolutizatu egiten ditu balio batzuk eta dogmatikoki bermatu, ikusten ari garen moduan.

Zer egin egoera horretan eskolak, intelektualek? Balio absolutu irmoak defendatu? Krisiaren eta biolentziaren kausatzat jotzen diren balioen erlatibismoa irakatsi? Eskolari auzia sortzen zaio. Nola esku hartu aktiboki, alde batetik, gaur egiazkoa den balioen krisia eta erlatibismoa "gainditzeko" eztabaidan, eta bestetik

balio batzuen absolutismoan interesatua dagoen Estatuaren eskumakila hutsa ez izateko.

Hona laburki nire tesia, batere originala ez dena bestalde: hezkuntzaren eginkizuna, kulturarena bezala, gaurgero balio ezberdinekin bizitzeko razionalitate eredu sozial berriak garatzea izango da gaurgero: (1) balioen beren gogoeta berri bat hain zuzen, (2) gizartearen eta libertatearen gogoe-ta berri baten baitan ordea, (3) elkarbizitza berri bat balioen "politeismoan" bideratzeko praktikan.

### Aterpe seguru bila

Estrategia ezberdinak daude erlatibismoaren kazkabarratik ustezko aterpe segurura ihes egiteko. Bi aipatuko ditut: "indarkeria oro gaiztoa dela" duzue bat; eta zer dagoen ongi ala gaizki jakiteko bakoitzak bere baitan omen duen "sen moral jatorrarena" bestea. Biak ere Euskal Herritik kanpora XIX. mendeko balioen krisi handiaz geroztik Europan nahikoa eman eta eztabaidatu diren errekursoak. Baina bi puntu hauei ez diet zentralak direnik irizten nire proposamenerako eta horien gainean, zerbait luzatu arren, ez naiz sakonki eztabaidatzen ahaleginduko. Adibide antzera bakarrik planteatuko ditut.

a) Atentatu bat egon da. Ongi dago? Gaizki dago?<sup>5</sup> Deserosoa da benetan, ongi ala gaizki dagoen ezin jakinda egotea askotan. Ongi dagoela, oso zaila da inoiz esan ahal izatea. Erabat ongi inoiz ez baitago, onenean ere ezinbesteko tragedia bat da<sup>6</sup>. Nola dakigu gaizki dagoela? "Sen moral jatorrak" edo "barruak" hori agintzen digulako omen da arrazoia, aipatu dugun lehenengo aterpe seguru<sup>7</sup>, alegia.

Ulertzen den arabera, astakeria handitxo izan liteke tesi honek, kristautasunarekin erro-errotik arras konponezina, itxuraz hain zuzen kristautasunetik formulatua izan nahi duen arren, adierazten duena. Has gaitezen galdezka, "sen" horren egiazko izaera argitzeko. Nondik norakoa eta zer nolakoa ote da sen edo sentimendu hori? Norbaiten dohain partikularra bada, jendartean ez digu ezertarako balio; kulturala bada, kultura batzuetan funtzionatu eta beste batzuetan funtzionatzen ez duena izango da; erlijiosoa bada, erlijioak itsatsia izanen da, eta gure erlijioak ez den jende askotxo dabil munduan besterik gabe deskalifikatu ezin duguna. Sen naturala ote da hori, biologikoa edo, animalien senaren antzera gure baitan diharduena? Horrela bada ordea, ez da morala. Gainera, gizakiaren eboluzioak ekarririko senezko edo naturala bada, munduan zehar denok parekoa eduki beharko genuke, eta berdintsua gizadiaren leku eta garai guztietan; ondorioz, batzuek ez edukitzea, makur natural edo biologikotzat jo beharko litzateke, ez litzateke izango arazo politikoa (zentzu aristotelikoan) ezta morala ere. (Itsua ez ikustea ez da akats morala). Baina zinez sen moral hori naturaz dutenak batzuk badira (beraiek diotenez) eta beste batzuk ez (suposatzen dutenez) gizaki edo arraza izpiritual "moralki goitarrago" duten batzuen tesi oso labainkorrean sartuak gaituzue XIX. mendeko inperialismo europarraren teoriko batzuen antzera (C. Rhodes) edo Hegoafrikako apartheid politikaren justifikatzaileen maneran. (Egiaz, beldur naiz "arrazismo xuri" hau franko zabaldua dagoela hemengo demokraten artean; are

gehiago, progresia berrienaren ezaugarria edo exijentzia bihurtzen ari dela ematen du). Nola ulertu, beraz, sen edo "barru" sano hori?... Ez dut "sentimendu moralaren" arrazoia, etikaren historian tradizio beneragarrikoa, guztiz gutxietsi nahi, eta etorriko naiz horretara gero (hezkuntzak landu beharreko eginkizun batera bezala). Bakarrik esan, ez dudala ikusten ezertan laguntzen digunik oinarrien eztabaidan, iheslekurik ez dagoen norabait ihes egin nahi izateko ez bada. Arrazoiaketa publiko bat oinarritzeko behintzat ez digu balio.

Saia nadin, ordea, tesi hori, beharbada formulazio traketseko bada ere, esangurarik positiboen hartzan; hots, hilketa biolento baten aurrean denok sentitzen dugun kontzientziako inarrosaldiaren edo exijentzia primario baten erako samintasun eta dardara sentimendu hori printzipio mailara altxatu nahi dugularik. Inork ez du esango sentimendu legitimoa ez denik. Balio ote digu kriterio bezala? Zilegi ote dugu arrazoiaketa sentimendu batean oinarritu nahi izatea?

Praktikan denok geure usteen "ebidentziatik", hots, "barruak" agindu bezala balioesten eta jokatzen dugu. Substantzian hori Max Weberen funtsezko bi moral tipo ezberdinen bereizketa ezaguna trazatu duenean ustearen edo intentzioaren etika nahiz ("Gesinnungsethik")<sup>8</sup> erantzukizunaren edo ondorioak neurtzen dituen etika "politikoen" eruduari kontrajarri diona da. Zilegi da hiltzea ala ez? Bai ala ez. Kito. Bitarteko aukerarik ez dago. Usteen etika, barruak aginduriko hori, absolutua da. Garbia eta segurua da beti, intentzioa garbia eta segurua bada. Ez da ibiltzen,

bonba bat jartzen deneko kasuan esaterako, momentu horretan politikoki egokia ala ezegokia ote den analizatzen, ondorioak eta erreakzioak zein izanete diren kalkulatu. "Konbentzimendu etikoak, dio Max Weberek, ez du jasaten munduaren irrazionalismo etikoa". Aldez aurretik eta kasu guztietarako printzipioak garbi eduki nahi ditu. Beharbada ez da gaizki etorriko gomutatzea, konbentzimendu etikoaren eredu gisa Max Weberek aipatzen dituen bi adibideak: bonbaz eta terrorez noizpait bazterrak majo espantatu zituzten sindikalista iraultzaileak edo anarkistak eta Inkisitore Handia bera.

Ez nago ni gizarte modernoan intentzio edo intuizioa, ustea, hori etikatik desterratu beharra dagoela uste dutenekin, hori jatorri erlijioso hutsekoa delakoan, ja ez omen gara bizi Erdi Aroko bas-tida edo harresidun hiri bateko unibertso txiki inguratuan, hor gizon-emakumeen arteko erlazio sinpleak arautzeko aski omen baitzen intentzioaren kontsiderazioa. Teknikaren munduan gure ekin-tzen ondorioak omen dira kontsideratu beharrekoak, askotan intentzio gaizto gabeko edozein ekintza hutsalek ondorio katastrofikoak baititu, "bainu gelan ilea finkatzeko spray piska batek Australia gainean eragiten duen ozono zuloa handitzeko kalte ekologikoak" adibidez. Ongi da erantzukizunaren etika edo kontsekuentzialismoa. Baina ondorioak, gizarte moderno irekian hain zuzen, zeharo kalkulaziazinak dira askotan. Eta neure burua nortasun moralala legez (erantzukizuneko) ezagutu eta kontrolatu ahal izateko, ene ekintzaren ondorioak ezin jakin eta kontrola ditzakedanean, ez zait intentzioaren domeinua



besterik geratzen eskura. Beraz, berriro, ez nuke sentimendu moralaren balioa inola ere gutxietsi nahi, ondorioen razionalitate biluziren baten alde egiteko. Halere, "nadie que haya estudiado la historia de las ideas morales podrá considerar la conciencia [barrua, sentimendu moralala] como invariablemente justa" dio edozein teologo moral tradizionalistak esan zezakeen bezalaxe, B. Russellek kasu honetan<sup>9</sup>. Eta beste leku batean: "Cuando alguien hace lo que su conciencia aprueba realiza lo que cree que es objetivamente justo, pero no necesariamente lo que es objetivamente justo. Necesitamos, por consiguiente, algún criterio distinto del sentido moral para juzgar lo que es objetivamente justo"<sup>10</sup>. "Al definir la rectitud objetiva es como se hacen relevantes las consecuencias" jarraitzen du. Etorriko gara gero ondorioen kontura.

Beraz, arazoa sentimendu edo sen moralaren, barruak agindutakoaren, kontzientziako emozioen mailan jartzeak ez digu ezertan laguntzen ekintza justu eta injustuaren *kriterioak markatzeko* (horrekin esan gabe bizitzan ez digula ezertarako balio). Sentimendua kriterio bat da. Berak ondo gidatzen gaituen ala ez gaituen jakiteko beste kriterio bat

eskatzeko: ondorioen azterketa, esaterako. Atentatu bat egon bada, arazoa ez dago guri barrutik ateratzen zaigun sentimenduan. Russellek ironia gaiztoz dioenez: "si a un hombre le gustan las ostras y a otro no, no podemos decir que uno de los dos *se equivoca*".

Ez nuke bukatu nahi, naturaltasun guztiarekin ere norbere sena sen moral zuzen eta jatortzat hartzea tradizio "ilustratu" (enetzat oso sasiilustratu) bateko agerkai susmagarria iruditzen zaidala gehitu gabe. San Mateok horrelakoxe bati fariseoaren etsenplu perfektua deritzo. Kristau fededun nahiz fedegabe batentzat, norbere senak ez dauka zertan izan kanibalena baino naturalago edo fidagarriagoa.

b) Irizpide seguruetakoa bigarren aterpea "biolentzia beti gaiztoa dela" zen<sup>11</sup>. "Indarkeria beti gaiztoa dela" arrazoi daiteke konbentzimendu baten izenean edo ondorioen izenean. Ondorioen izenean tesi hori zinez *arrazoitzea*, oso zaila da, a priori ezinezkoa dela ez esatearren. Horregatik, ondorioetatik arrazoitzen denean beti kategorikoki baietsi egiten da, frogatzen deus ahalegindu gabe: historiari gabe utziko baikintuzke horren frogak! Hala bada, guk ere ezin arrazoi hori historikoki eta konkretuki ezta-

baidatu hemen! Bakarrik, indarkeria beti gaiztoa dela biribilki publikoki baiesteko ausardia sozial erraza publikoki erakusten duenak aukera du ausardia intelektual zailagoa ere publikoan egiaz erakusteko, Euskal Herria baino lehen beste erreferentzia batzuetan proba eginez. Esate baterako: har bitza Espainia, Frantzia, Ingalaterrako historiako testuak eskuan, eta azal beza nola hor aurkituko dituen biolentzia loriatsu guztiak positiboki azaldurik Espainia, Frantzia eta Ingalaterrarentzat ondorio gaiztoak besterik ekarri ez dituztenak, berauek. Ezaba bitza orri "gaizto" denak ea zer geratzen zaion. Arrisku handia du historia unibertsal guztian orri askorik gabe geratzeko. Seguruena bada, bere ondorioa giza historia benetan oso gaiztoa dela izango da, eta Espainia, Frantzia eta Ingalaterra horiek errealitate oso gaiztoak direla orobat. Eta hori, halakoxe perspektiba baten arabera izan ere. Arrazoi guztiarekin meditatzen da hori Arantzazun, hau da, tradizio monastiko guztiak, ekialdean nahiz mendebalean, beti oso ondo jakina izan da hori, eta nik ere bai, hortaz. Perspektibaren kontua da problema guztia. Perspektiba transzendente batean bortxa oro da gaiztoa. Edo, beste formula batekin, Jainkoa maitasuna da. (Bide batez gogoratzeko, perspektiba hau Nietzschek txit zakarki jorratua dago). Baina perspektiba hori ez da morala besterik gabe, politikarekin eta "munduarekin" lot ezin daitekeen moral konkretu ("ebangelikoa" edo nahi bada, frantziskotarra) batekoa baizik.

Bortxak "ezer onik" ez dakarreneko tesiak, esan biezagu gaiztoztat al dauzkan, ala nola etorrira-

kotzat dauzkan, egungo Estatuak eta erakunde estatal guztiak, Justiziaren erakunde horien artean, eta demokrazia, Giza Eskubideen Deklarazioa, edo esklabotasunaren abolizioa, eta abar. Eta esan biezagu nola mendebaleko ia teologia eta filosofia guztiak eta tradizio moral guzti-guztia tronpatu diren: ez aspaldiko San Agustin hura bakarrik, afrikanoa, baita Kant razionalista eta Hegel idealista protestanteak European, eta San Tomas eskolastikoa eta Maritain pertsonalista katolikoak halaber, denek onartu baitute, bakoitzak bere modura, Jainkoak (edo historiak) lerro okerretan zuzen idazten omen dakieneko axioma hura. Umetan durduzatu gintuen eskakune harrigarri simple hori oinarritzko printzipio sakon bat baita (Voltaire, Kant, Hegel, etab) historiaren filosofia guztietan. Ongia eta gaizkia nahasiki ematen dira historian; are gehiago, bata bestearren aita eta umea dira elkarrekiko.

Razionalki jokatzekotan, beti hori eskatzen baita hemen, biolentzia orok beti ondorio gaiztoak ekartzen ditueneko tesi mugagabea (beraz, nekez razionala) empirikoki nola frogatu ote daitekeen baino historian tesi hori aldarrikatu izan duten korronteek denborarekin zein abelera izan duten aztertzea zeregin mugatuago eta egokiagoa izango litzateke araketa positibo baterako. Indarkeriak ondorio onik ez duenaren konbentzimendua, kristautasuna eta budismoa bezalako munduen has-tapenetan dagoela, ematen du. Hor ere ez du luze iraun gero: gizartean asko hedatu eta munduarekin "konpondioak" egin behar izan arteraino. Zalantza gabe, ideal zoragarri bat espresatzen du, alegia; ez errealitatea. Kristautasunaren historia ezaguna


dugu (gurutzean hildako fundatzaile bat hasieran, mende batzuk geroago gerra santuak eta gurutzetuen "Jainkoak nahi du!"). E. Conzeren A Short History of Buddhism-en eboluzio harrigarri berbera irakurtzen da: bizirik zegoen ezeri inolako kalterik ez egitekotan hasi ("ahimsa") eta laster Boterearen erlijio ofiziala izatera heldu da. Prozesu hau jarraituz mende batzuk geroago sinestegabeak "milaka hiltzea" ekintza bedeinkagarria dela predikatzeraino eta Sri Lankako errege Dutthagamani gerrazaleari monje taldeek errezoekin gerralagun egiteraino. Erregeak berak Budaren erlijio bat ei zeraman bere lantzan.

De facto bortxa orenen ukoa, garai modernoetan behintzat, ondorioen kontsidero eta printzipiozko konbentzimenduen konbinazio baten eran agertu ohi da gehienbat. Hala da F. W. Foerster (1869-1966) pedagogo eta pazifista militantearen kasuan. Haren oinarritzko tesiak zioenez: Ongitik ongia bakarrik dator, eta gaiztotik ez dator gaiztoa baino. F. W. Foerster, Municheko Unibertsitatean pedagogiako irakaslea 1914tik 1920ra, antimilitarista, politikaren teoriko guztiz kritikoa, pazifista erradikala izan da; nazional-sozialismoaren kontrarioa, 1933an Suitzara emigratu behar izan du, gero Frantziara eta 1942an USARA naziengandik ihesi. Errespetu guztia, beraz, pertsonari eta militanteari - "profetari". Baina Foerster horrexen aurka, zehazkiago horren "Etika eta Pedagogia Politikoa" (1918) liburuaren aurka zehazkiago, garatu zuen hain zuzen, Municheko Unibertsitatean kolega zen Max Weberek, bere bi etika tipoen aipatu bereizketa (Foersteren ideiak eta sloganak



behin baino gehiagotan erabili ditu Karlos Santamariak; baina Santamaria, Max Weber bezalaxe, ez da pazifismo absolutuaren aldekoa sekula izan). Max Weber oso zorrotza da bere kritikan: Foersteren printzipio hura egia balitz (ongitik ongia, etab.) problema moralik batere ez litzateke egongo historian. Ongia eta gaizkia puru-puruak izango lirateke, ez lirateke inoiz nahastuko. "Harrigarria da gero, jarraitzen du hartaz, Upanishadak baino 2500 urte geroago holako doktrina batek egunaren argia ikusi ahal izatea. Historia unibertsalaren ibilbide guztiak ezezik egunoroko esperientziaren edozein analisi egiatik alderantzizkoa erakusten baitu". Pazifismo absolutuaren etika, deritzo Weberek, maila pertsonalean ongi dago "guztitan eta denean" kontsekuente jokatzan duen santu batentzat, hots, bere santutasun bakartian munduari eta errealismoari kontzesio gabe bizi denarentzat (Asisko San Frantzisko aipatzen du) masaila batean jotzen bazaituzte bestea jartzeko, Mendiko Predikuan irakasten dena. Hori da "ebangelioko etika absolutua". Posible al da etika hori politikan? Ez, politikoarentzat, erantzukizun soziala duenarentzat, gizatasunaren duineztasuna da jokabide hori ("Ethik der Würdelosigkeit"). "Hori ikusten ez duena, zinez haur bat da politikoki"<sup>12</sup>. Politika nolabait "kontzientziaren gaineratik" dagoela esango genuke ("For policy sits above conscience", dio Shakespearean Timon Atenaskoak, III, 2); h. d., ondorioen menpe.

Indarkeriaren eztabaidan fronte eta aspektu asko daude. Arrazoi-keta moldeak ere asko daude. Konkretuki "indarkeria oro"ren arrazoi moldera ihes egitea frogaezinezkoaren eremuetara ihes egi-



tea da. Beraz, aurrena, ez da ezertarako ere beharrezkoa. Bigarren, ez da sinesgarria. Hirugarrenoz ordea, galdetu behar da zerk eragiten duen behin eta berriro egiatik ihes egite hori, arazoa batere premiarik ez dagoen eta eztabaida erreala ezinezkoa bilakarazten duen maila batera eramateko. Ez da sinesgarria: egunotan Espainiako Atzerri Ministroak mendebaleko Estatuek Irakekin gerran sartzea oso posible dela iragarri du telebistan. Ez da inon ikusi jendoldeen indignazioaren uhin handirik ezta intelektualeen protesta txikien ere. Beraz, Euskal Herriko indargintzaren arazoa ez da arazo abstraktu, ez absolutu bat; arrazoi historiko, politiko, sozial, kultural konkretuak dauzkan arazoa da, beraz, erlatiboak eta kondizionalak, beraz, baldintzak ipinizganditu edo konpondu ezin ez direnak). Ez dago inolako arrazoi logikorik, arazo konkretu mugatu bat modu absolutuan eztabaidatu nahi izateko. Arrazoi bakarra arazo hau soluziorik ez duen eztabaida (sasifilosofiko) infinito batean nahaspilatzeke interesa izan lite-

ke. Edo arrazoi "kontudente" propagandistikoak bihurtzea. Eta arrazoi hauen arrazoi politikoa, beharbada, denok asma genezake.

### Balio denak erlatiboak dira

Uste dut hortik hasi beharra dagoela eta horretan ez dago milimetro bat ere amore ematerik. Balio denak erlatiboak dira, arrazoiak ere denak erlatiboak dira. Ez dago balio absoluturik. Ez ongi eta ez gaizki absoluturik.

Errazena erlatibismo unibertsal honegatik heia goratzea da eta eskandalizatzea, hala ikusten dugu, eta gure neomoderno batzuek gustu dutenez egungo miseriaren aldean behialako ilustrazio razional eta burgoi paregabea goraiatzeari ("hura zan gizona, hura!"). Orduan, arrazoimenak oraingo erlatibismo mengelik gabe, garbi eta sendo zekien zer dagoen ongi eta zer gaizki (berak oinarritzen baitzuen!), zer den Egia, letra handikoa, eta zer Zuzena (bere produktuak zituen!), nola aitzinarazten den historia (bere eskuetan zeuzkan progresoarenekin uhalak!), nola fabrikatzen den



Zuzenbideko Estatuan askatasuna, berdintasuna eta anaitasuna. "Dichosa edad y siglos dichosos aquellos a quien los antiguos pusieron nombre de dorados!"... Gure Ilustrazioko arrazoimenaren nostalgikoek argitzen ez digutena da Ilustrazio horrek gaur zer izan beharko lukeen edo Ilustraziok berak, kritikak, arrazoimen oinarritzatzaile ahaltsu hura aspaldi birrindu eta gero, zer izan ahalgo litzatekeen gaur arrazoimen ilustratu bat arrazoimen erlatibista hauxe ez bada. Izan ere, nola bizi XVIII. mendeko arrazoimena XXI. mendean, XVIII. mende hura ukatuz ez bada? Arrazoimen zaharra, absolutua eta metafisikoa, kreatzailea eta oinarritzatzailea, Jainkoaren ordezkoa izatetik instrumental hutsa izatera etorria dago, eta, nostalgikoak gorabehera, horrek ez dauka bueltarik.

Balioez hitzegiten Kant hasi da. Baina XIX. mendeko azkenetan eta I. Mundu Gerraren inguruan eduki du balioei buruzko diskurtsoak bere bolada handia Erteuropan, garaiko balioen erabateko

krisia ezkutaezina bilakatu denean. Hots, borroka sozialaren forma "eskandalagarri" batzuek "balioen krisia" ebidentzia osoan ipini dutenean. Aski da ikustea espartakistak, sindikalista iraultzaileak, profeta kiliastikoak eta zer beste jendilaje dabilen gai honen inguruan Max Weberen lerroetan aipatuak (oraindik ezkerrekoak bakarrik, eskuinekoak laster agertuko dira Alemaniako eszenan). Zenbait jende gure artean ikararuta agertzen da oraingo balioen bandalismoarekin, beren ustetan. Zer nolako inpresioa egin behar izan dion jendeari balioen porrot publikoa XIX. mendeko Nietzscheren "Jainkoaren heriotzaren" filosofian nabari da. "Zer gertatu da Jainkoarekin? -itauntzen du eroak *Zientzia gaya*-n. Nik esango dizuet. Guk asasinatu dugu, zuek eta nik. Gu gara bere asasinoak!". Baina Jainkoa (Absolutua) hilik, "betidanik" gure bizitza fundamendatzen zuten balio denak apurtu dira. Erreferentzia punturik, artizarrik gabe geratu gara itsasoan, gauean. "Zer egiten dugu lurra bere eguzkitik banatuz? Nora joanen da orain? Nora joanen gara gu, eguzki guztietatik urrun? Ez al dugu jarraitzen, atzerantz, alboetarantz eta aurrerantz jausten? Ba al dago ja goirik eta beherik? Ez al goaz aurrera ezerez infinito batean errari, apika?". Jainkoarekin batera ongiaren eta gaizkiaren balioen taula funditu egin da. Nihilismoa da gure historia kulturalaren emaitza, kristautasunaren, moralaren eta filosofiako egia-entzuteptuaren ondorio nahitaezkoa da. Ilusioak estaltzen zituen mozorroa jausi denean dena jausi da, ez da ezer geratu. "Existenziaren izaera arrunta «helburu» nozioaz, «batasuna»

nozioaz edo «egia» nozioaz interpretatzea ez zela zilegizkoa ulertu zenean, balio orenen hutsunearen sentimendua jo zuen".

Krisiaren honen lekukotza inpresionagarri askoa, XIX. mendearen hondarrean, Diltheyk ematen digu obserbazio arras interesante bat eginez, hots, Iraultza Frantsesaz geroztiko gizartearen kordokatze gaitzekin, giza-zientzia modernoek sorrera eta garapena bera lotuz, krisiaren exijentzia bezala, ito-larritik salbazio bila. Hainbeste iraultza, gerra, txikizio eta restaurazio artean, gizarteak ja ez dio fidatu nahi bere zortea erlijioari edo ohi-turari, zientzien esku ikusi nahi du hori. Gizarte bera zer den, zer egin behar duenaren erantzuna zientzietatik espero du, ez beste inorengandik. "Gizarteak nagusi diren indarren ezagutza, horien kordokatzeak sortarazi dituzten kausek, aurrerakuntza zindotek bere aurrean daukan baliabidea hil ala biziko auzia gertatu zaio gure zibilizazioari. Horregatik ari da hazten gizarte-zientzien garrantzia naturakoen aldean; gure bizitza modernoko dimentsio handietan interes zientifikoen mudantza bat ari da gertatzen, zeina Kristo aurreko V. eta VI. mendeetan *polis* greko txikietan gertatu zenaren antzekoa baita"<sup>13</sup>. Alabaina, balioen krisialdiak ernarazi eta indarturiko giza eta gizarte zientzia horiek beraiek (historiak, soziologiak, psikologiak, antropologiak, etab.) zeharotuko dute laster balioen azkeneko suntsipena.

Lehen aldiz XIX.etik XX. menderako iragaitza horretan jaso da hiztegiaren "erlatibismo" kontzeptu bera<sup>14</sup>. Gero berehalaxe finkatua ageri baita testu filosofikoetan, eta arrunt zabalduz joan da mintzaira kultuan ere. Guri eza-

gutzeke ematen zaigun oren erlatibotasuna esan nahi du erlatibismoak<sup>15</sup>. Baina, kasu!, erlatibotasunak ez du balio eskasa edo inportantzia gutxi esan nahi: esan nahi duena guk ezagutzen dugun oro harreman edo erlazio sistema batean ezagutzen dugula, h. d., ezagun dugun zernahi hori ikusgune baten arabera, beste puntu batzuekiko erreferentzi sisteman ezagutzen dugula, geuk aurrezaririko interes (teoriko edo praktikoko) batzuen markuan, momentu historiko eta ingurune kultural baten baldintzen arabera, perspektibaren antzera... ezagutzen dugula. Ez absolutuki, alegia. Erlatiboa absolutuari kontrajartzen zaio<sup>16</sup> bere baitako eta baldintza gabekoari. Beraz, erlatibismoarentzat, egia oro, edo balio oro, ikuspuntu batentzat da egiazko edo baliozkoa. Aurrena erlatibismoa doktrina ezagutza-teorikoa izan da filosofian. Handik etikara pasa da. Engoitik orain, kontzeptu orokor oso zabala da ja, egiaren edo balioen erlatibotasun arrunta erakusten edo suposatzen duen zenbait praxi franko ezberdin zientzietan barnebiltzen duena: orduan gaur egun erlatibismoa aurkitu, perspektibismo, historizismo, soziologismo, psikologismo, antropologismo, biologismo, eboluzionismo, pragmatismo, fikzionalismo, etab., gisan aurkitzen da de facto.

Balioen ezinbesteko erlatibismoa haien arrazoi edo fundamentazioaren aldetik azal daiteke ("timor fecit deos" arrazoiaren tankeran): azkeneko mende eta erdian historiak, soziologiak, psikologiak, antropologiak, hamaika modutako hainbat azterketa egin dute, gizarte konkretu batean balioak zein baldintzetan sortuak diren, zein arrazoitari oinarritu ohi den haien justifikazioa eta

abar.. Etika filosofiko razionalenak ere (Kant, esaterako) beren barne-baldintza psikologiko, sozial, historikoen aldetik kupida gabe ikeretzen eta biluzten dira. Horrela deskubritzen da, Alfred J. Ayerekin esateko, "que una de las principales causas de la conducta moral es el miedo, tanto consciente como inconsciente al enojo de un dios, y el miedo a la hostilidad de la sociedad. Y ésta es, realmente, la razón por la cual los preceptos morales se presentan a ciertas gentes como mandamientos «categoricos». Y descubre también que el código moral de una sociedad está, en parte, determinado por las creencias de la sociedad relativas a las condiciones de su propia felicidad, o, en otras palabras, que una sociedad tiende a alentar o desalentar un determinado tipo de conducta, mediante el empleo de sanciones morales, según parezca que aumente o disminuya la satisfacción de la sociedad como conjunto"<sup>17</sup>. Gehi dezadan badaezpada berriro beldurra, etab. (heriotzaren beldurra adibidez), oso arrazoizkoa berau kontsideratzeko, h. d., positibotzat ez hartzeko, ez dagoela arrazoirik batere. "Jainkoaren" edo gizartearen etsaigoaren beldurra ez dauka zergatik negatiboa izan. Alderantziz. Bistakoa da, esaterako, gizartearekin ondo etortzeko asmoa suposatu beharra dagoela edozein portaera etikoren oinarrian; eta elkarbizitzaarako borondatea gauza nahiko razionalizat eta positibotzat hartzeko dela inork ez du zalantzarik egingo. Aurkitu ezingo dena ez da balio baten egokitasun eta arrazoizkotasuna (erlatiboa), hura bizitzaarako aski justifikatzen duena (eternitaterako ez dakit: baina gizarte politikoan ez gara zerurako bidez ari); hura absolutuki fun-

damentatuko lukeen arrazoi absolutua baizik.

Balioak absolutuki oinarritu erlijioek egiten dute. Jainkoak hau eta hori agindu badu, agindu horren oinarria absolutua da, noski. Bakarrik absolututasun horrek gizon-emakume jakin baten fedea auresuposatzen du eta hagitz fede diferenteak daudenez, eta hortaz Jainkoaren aginduak ere ezberdinak direnez (Koranean, Biblian; Biblian bertan ere: juduak, katolikoak, mormoiak) gizarte demokratiko pluralistetan Jainkoaren arrazoa, gehienez ere, errespetatu egiten da, hitzez hitz behintzat ez da gizarte antolaketaren zimendutzat hartzen ahal. Jainkoa baztertu eta haren lekuan balioak oinarritzeko instantzia bakartzat arrazoiarena dela aitortzen bada ordea, giza arrazoimenak bera ez dela absolutua ezer absolutuki bere gainean sostengatu ahal izateko, ikusten du, "mozorroak jausi" orduko. Ilustrazioak Jainkoa kendu eta haren lekuan arrazoimena jainkotu zuen (bitxiki "sekulartasun" bezala ederretsi ohi dute batzuek filosofiarenean teologizazio lirdinga hori!). Baina autoengainu honek ez du asko iraun ahal izan<sup>18</sup>.

(Eztabaida liteke agian ez ote daitekeen metaetika bat absolutuki oinarritu -etika formal huts bat, alegia-, baina eduki material edo balio konkreturik ezingo luke barnebildu, eta hori ez da hementxo arazo. Halere, gure gizartean, kazetetan, irratietan, egiten ari den "filosofoen" erabilera ikusita, arazoak badu ene ustez bere interesa, eta permitiiez aipamen luzetxo baina interesgarri bat: "Todas las teorías morales, la intuicionista, la naturalista, la objetivista, la emotiva, y todas las demás, en la medida en que son

teorías filosóficas, son neutras en lo que se refiere a la conducta real. Para hablar técnicamente, pertenecen al terreno de la meta-ética, no a la ética propiamente dicha<sup>19</sup>. Por eso es por lo que, para cualquier tipo de filósofo resulta necio lo mismo que presuntuoso proclamarse paladín de la virtud. Y ésta es también una de las razones por las que muchas personas encuentran la filosofía moral como un tema que les deja descontentos. Porque, equivocadamente, acuden al filósofo moral queriéndolo tomar por guía". Filosofían askotan bilatzen da erlijioaren baliakidea; eta filosofoarengan zuzendari izpiritualaren ordezkoa. Baina etikako irakaslea ez da inor etxeoandre bati morala irakastek, ez gehiago daki eta ez gehiago dauka. Ederki legoke gizadia, esan genezake Kanten antzera, laborariak edo etxeoandreak zer egin behar duten jakiteko filosofoaren zain egon beharko balute!<sup>20</sup>

Ondorioen edo praktikaren kontsiderazio aldetik ere azal daiteke balioen erlatibismoa. Suposa dezagun "Ez hill!" agindu biblikoa. Iker daiteke zein testuinguru historiko eta sozialetan sortua den agindu hori Israelgo herriaren bizitzan; zein sentido antropologiko eta erlijioso zuen basamortuko artzantza zeken arriskuz betean, zein betekizun sozial betetzen eta beraz zein balio politiko-soziala zuen, eta abar. Dena dela, hori hartu, har daiteke absolutuki; eta orduan praktikan, ez situazio ideal batean, zein kasutan, zein mailatan (indibidualean, sozialean), zein den horren arrazoizkotasuna eztabaidatu beharko dugu; eta arrazoizkotasun hori al den aginduari baliozkotasun absolutua daramaiona. (Ez baitago dudarik, fedeak eman diezaiokeela; baina

fedeak absolutuki agindu ditzake gerrak ere). Praktikan, de facto, salbuespen kasu gehiegi dagoela, agian egon beharra dagoela, ikusiko dugu: defentsa legitimoa, norberarena edo lagun hurkoarena, tiranizidua, gerra "justua"<sup>21</sup>, etab. Russellek dioen moduan: "Cabe admitir que un código como el Decálogo difícilmente puede ser verdadero *sin excepciones*, si es que la bondad o maldad de las consecuencias es lo que determina la rectitud o injusticia de las acciones; en un mundo tan complejo, es difícil que la obediencia al Decálogo produzca *siempre* mejores consecuencias que la desobediencia"<sup>22</sup>.

Berdintsu da beste printzipio edo balio absolutu batzuekin, "bizitza sakratua da" adibidez<sup>23</sup>. E. Conzek "biolentzia ororen" aurkako lehen formulazio horren jatorriaz eta hedakuntzaz apunte historiko eta sozial kuriosoak eskaintzen ditu: K. a. 3000. urte aldera hasi eta gotortuz joan dira despotia teknologikoek beren operazio militar handizaleekin, eta askotan, beren proiektu tekniko erraldoekin eragindako bortxakeria itzelekin. Bizitzari egindako itxuragabeko sarraski aurka sortu diren mugimendu anitzetako bat da budismoa. Zibilizazioaren garapide harroa, hasieratik bertatik, boterearen eta indarraren basakeriaren kontzientzia saminarekin batera ibili da aurrera. K. a. 600 inguruan holako protesta mugimenduen uhin batek Asia osoa pasa zuen aldenik alde, Txinatik Egeoko uharte grekoetaraino Asia Txikiaren aurretik (hemendik pitagorismoak Mediterraniora zabalduko du). Baina mugimendu historiko zabal horretan budismoa sozialki arroz laborantzako eskualdean sortu da eta ia bi mila eta bostehun urtetan

horrelako lurretan bakar-bakarrik zabaldu da; kulturaliki, lehenago dragoiaren eta sugearen kultoa ezagutu zuten herrietan nagusitu da, baina dragoiak eta sugeak borrokatzea eta hiltzea merituztat eduki duten gizarteetan ezin izan du inon etxekotu. Hauek izan dira Budismoaren sorrera eta zabalkundearen baldintza kultural, sozial eta ekonomikoak.

Doktrina eta printzipio santuenak ere, beren baldintza eta modu historikoetan jaio izan dira, eta beren baldintza sozial eta muga kulturaletan izaten dute beren balioa. Inguruabar horri datxekio beren zentzua. Zirkunstantziak aldatuz gero, agian balioko dute gerorago ere tradizioaren indarrez baina beren jatorrizko esanahia aldatu egiten da<sup>24</sup>. Aldarte historiko, sozial, kulturalen arabera giza esperientzia (beti erlatiboa) aldatuz doa, eta aldatuz doaz esperientzia (moral) gidatzen duten balioak ere (beti erlatibok). "Algunas tribus de cazadores de cabezas, idazten du Russellek, creen que ningún hombre debe llegar a casarse hasta que aporta al matrimonio la cabeza de un enemigo muerto por él mismo. Los que ponen en duda esta regla de moral, se considera que alientan el desorden y tienden a rebajar el prototipo de la humana virilidad"<sup>25</sup>.

### Erlatiboak bai, baina

Platonen aurka, eta arrazoime-na historiarekiko menperaezina suposatzen zuen racionalismo modernoaren aurka orobat, gaur egungo balioen lekua metafisikan eta erlijioan (edo, azkenean europarra eta modernoa bakarrik den, "arrazoi unibertsealean") baino gehiago historian eta gizartearen ikusten dugu alde batetik eta norbere kontzientzian bestetik.

Balioek denboran barrena eboluzionatu egiten dute. Gaur inork ez genuke onartuko norbaitek gure herrian ohikoa ez beste federen bat duelako, pertsona bat herriko plazan erretzea. Pertsonak ezezik, plazan katuak erretzea ere nekez onartuko genuke protestatu gabe! Norbert Eliasek kontatzen duenez, XVI. mendean dozena bat katu bizirik erretzen omen zuten sutan Parisen San Joan ganean hiritarren bozkarioa guztizkoa izan zedin festa honetan, eta errege familiak eta Paris handiki osoak hartzen omen zuen parte dibertiturik jaialdi herrikoian. (Zezen korridak jende zibilizatu asko dibertitzen du oraindik).

Sozialki ere, balio ezberdinak izaten dira gizarte batek eta besteak, edo klase batek, talde kultural batek, adin batek edo sexu batek hobetsi ohi dituenak. Badira amerikano batzuk "balio amerikanoak" aipatu zaleak. Frantsesek "balio errepublikanoez" hitzegiten dute zerbeit ez errepublikano egitera doazenoro. "Balio viktoriarrak" ohorezkoak dira ohorezko Ingalaterran. ("Euskal balioak" aipatzea perilosagoa da, "euskal" den ezer aipatu orduko susmagarria zara eta, egia esateko, neuk ez nekike zein diren). Iparreupar batentzat ez da beti erraza izaten Hegoaldeko moduetara ohitzea; ezta zahar batentzat gazteen balioetara jartzea, edo gaztearentzat zaharragoenetara; ez zibil batentzat "balio militarretara"... Balioak mundu guztiak dauka, baina (talde) bakoitzak bereak. Balioak hor daude, edonon daude. Gure egunoroko bizitza betetzen dute: balio etiko, estetiko, erlijioso, zientifikoek.... Gertakari historiko eta sozial guztietan espresatzen dira atentatu batean, festa-

tan, lanean, semaforo aurrean, eskolan azterketa garaian. Erakunde publikoak balio batzuen espresioa dira, haien aurkako borrokak ere balio batzuk espresatzen ditu.

Horrela erlatibismoaren kontzientziak "balioen filosofiak" piztarazi ditu krisiarekin batera, XIX. mendean (Lotze eta abar) eta XX. mendeko lehen laurdena ere dominatuz. ("Erlatibismoa filosofiaren abdikazioa da eta haren heriotza": W. Windelband)<sup>26</sup>. "Balioen filosofia" oro har Badengo eskola neokantiarrari iritzi ohi zaio (Windelband, Rickert eta abar); eta Lehen Filosofia edo oinarrizko filosofia berri bat ezarri nahi izan du dena gainezkatua zuen erlatibismoaren uholdeari aurre egiteko. Ezagutza "egiten" duena, edo ezagutzaren araua, hots, "egia" zer den oinarritzen duena, ezagutzailearen buruan dagoela zioen Kantek; ez (bere baitan inoiz atzeman ezin dugun) enpirikotan. Beraz, orain gure hizkeran jarraitzeko, gure burua edo kontzientzia arautegi bat da: egiak zernolako zer izan behar duen, edozein obraren ongiak edo ederkiak zer izan behar duten a priori dauzkagu mundua ikusi ahal izateko aurretik aurpegian begiak dauzkagun eran, izpiri-

tualki munduari hurrantzerako gozanean orobat, hura juzgatzeko aurretik gure kontzientzian norma batzuk ditugu, absolutuak (esperientzia baino lehenagokoak, esperientzia posible egiten dutenak hain zuzen, hots, esperientzia bat holako eta halakoxea izatea (egiaren esperientzia, ederrarena, ongiarena eta abar) beraiek arauak moldatzen dituztenak). Egiaren egia edo ederraren ederra izan behar hori behar ideala da, araueman ("sollen"), ez behar fisiko edo mekanikoa ("müssen"). Horrela, juzgatze oro -zientifiko, etiko, estetiko edo nolana hiko-balioestea da, hots, balioaren (arauaren) arabera kontenplaztea; eta balioak, giza egintza izpiritual ororen barneneko elementuak errealitatearen aurrean baieste zein ezeste (intelektual, sentimental) oro arautzen dutenak. Filosofia, aldiz, balio unibertsal horien zientzia baizik ez da. (H. d., filosofiak, "kontzientzia arauemailearen zientziak", inoiz ez du mundu enpirikoa bera ikertzen, ezta balio enpirikoak ere, hauen aurrebalidintzak edo posibilitatea baizik). Honek denak esan gura du ez gaudela paraturik munduaren aurrez aurre, haren barruan baizik; munduarekin harremantzen



dena ez dela intelektu bat, nahimen eta sentimenduzko norbait baino, etab., subjektu/objektu eskema eta metafisika tradizionala suntsitzeko Heideggeren planteamentuetara daramaten hainbat motibo, hemen jaramon egiterik ez dagoena orain.

Windelbandek funtsezko hiru balio eta judizio mota bereizten ditu: logikoa, etikoa eta estetikoak. Rickertek ja sei; Münsterbergekek hogeita lau... Balioen unibertso konplexuan ordena edo sistema bat lortzeko saioak asko eta oso diferenteak egin dira: Max Scheler horien artean hierarkia bat aurkitzen saiatu da, gero etika bat garatzeko. Hartmannek bere sei eremuen taula egin du... Askok eta asko dira XX. mendearen lehen partean alemanez, ingelesez, frantsesez balioez jardun diren filosofoak. Emaitza handirik ez dakit lortu den. Esan daiteke balioen filosofia nolabait funtsezko balioen objektibotasuna eta oinarritzotasuna salbatu nahian abiatu zela, eta azkenean lehendik zegoena baino kaos handiago bat lortu dela. Ez alferrik luzatzeko Nicolai Hartmann, adibidez. Gizarte batean, uste dut, balio erlijiosoak eta balio moralak izan ohi direla inportanteenak, edo eraginkorrenak behintzat. Hartmannentzat, ordea, batzuk besteekin elkartezinak dira. Balio erlijiosoak eta balio moralak elkar ukatzen duten bost antinomiak bata-besteekin kontrajartzen dituzte. Orduan, balio moralen absolututasunak (hau eztabaidezina da Hartmannentzat) ateismoa postularazten du. Kuriosoa baita historiari nola eman duen buelta hemen: Kanten baitan, izan ere (balioen filosofia hauen hasieran, alegia) beste ezerk ez eta justu lege moralak postularazten zuen Jainkoaren existentzia!<sup>27</sup>

Nolabait abantailan gaude, beste esperientziatik ikas genezake. Balioen eztabaida ("krisiaren" inguruan) ehun bat urte geroago heldu da Euskal Herrira. Oker ez banago, balioen eztabaidaren eztabaida eta ebaluazioa, franko kritikoa, Alemanian behintzat, 55-65 aldera bukatutzat eman daiteke<sup>28</sup>. Balioen apologia handirik gabe, balioen diskurtsoaren arriskuez eta "balioen tiraniaz" hitzegiten da hor<sup>29</sup>: balioen anarkiaz, balioen esanahi ilunegiaz, balioen erabileraz edozer gauza berdin justifikatzeko, balioen nahiaz kontzientziaren lekuan inposatuak izateko<sup>30</sup>, balioen komertzializazioaz<sup>31</sup> eta abar; eta filosoifiaren ikuspegitik batik bat salaketa gaiztoagoa, funtsean izate platonikoaren metafisika zaharra balioaren metafisika azpian moztortuta jarraitu nahi izateaz, h. d., absoluturen bati desesperatuki atzamarrekin oratu nahi izateaz, amildegian hondoratzeko beldurrez. XIX. mendeak desegin duen "metafisikaren ordezkotako ahulaz" bezala mintzo da Heidegger balioen filosofia horretaz<sup>32</sup>. Beraz, "balioen filosofia" uste dut gaur ez dela asko interesatzen filosoifiari.

Balioen ardura, ordea, ez da filosofiko hutsa izan zorionez, eta gutxiago balioen apriorismoarena edo bakarrik zentzu zuzinalarena. Pedagogia (J. Dewey), soziologia, antropologia, balioen gizartearekiko zerikusiaz ibili dira modu filosofiko pragmatikoan arduraturik. Batzuei zein besteei eskerrak, erlatibismoan gaur ja ez dugu mehatxu bat sentitzen, kontzientziaren garapenerako eta gure erabaki pertsonalen erantzukizuna geuk ausartiago geure gain hartzeko eskaintza bat bezala baizik. Existenzialismoaren atmosferan hazi ginenok bederen, balioen

oinarritzapen razional absolutu bat ez dugu inola posible ikusten. Baina haren premiarik ere ez dugu sentitzen ezertarako. Alde horretatik, filosoifiari behintzat, XIX. mendean baino erosoago gaude.

Pentsatzen ausartuko ez nintzatekeena da, halere (eta hor dago kokka), Euskal Herrian gaur horixe dela iritzi publiko edo kultura arrunta. Garai batean hemen jende askok politika erlijio azpian errefuxiatu zuen. (Integrista batzuek Aita Santu "liberalaren" konbertsiorako errezatzen zuten orduan). Orain politika moralismoan errefuxiatzen da, ez moralean. (Eta filosofo laizista batek moraleko lezioak ematen dizkio Donostiako, bere ustez, terroristeekin aski beligerantea ez den Gotzaiari). Naziek "psikoanalisi judua" kondenatu egin zuten, balio nazionalen defentsa aski bipila egiten ez zuelako; orain azterketa antropologiko bat balio demokratikoen defentsa aski bipila ez egiteagatik kondenatzen da...<sup>33</sup> Orain artean komunikabideetan ikusten ari garena "erlatibisten" burlak eta irainak ugartzea eta handiagotzea besterik ez da. Halere erlatibismoaren aurkako axanpa eta antzerki guztiek ez diote "izpirituaren komediari" baino beste deusi laguntzen: bizi, zernahiren erlatibismoa hasteko, etikaren erlatibismoa arras moda eta negozio deklaratu den gizartean bizi gara denok. Haatik indarkeria desafio ikaragarria da pentsatzen duen edozeinentzat. Intelektualki edo razionalki, arraina sareetan bezalaxe, problema honetan berdintsu harrapatuta gaude denok: biolentziaren izugarria, balioak erlatiboak direlako... horrek inor ez gaitu lasai uzten<sup>34</sup>. Gehiago nahi genuke. Gehiago behar dugu. Baina zer?

Polemikak utzi eta egin deza-  
gun ahalegintxo bat, errealitatea  
balioen munduan egiaz nolako  
den xehekiago behatuz.

Esan dugu, arrazoi absoluturik  
ez dagoela. (Arrazoi absolutuare-  
kin ez legoke razionalki ados ez  
egoterik). Hori ez da, ordea,  
balioen razionalitateaz esateko  
dagoen dena. Esan dugu, senti-  
mentuak ez digula balio zuzenta-  
sunaren kriterio bezala. Senti-  
mentuaz ere badago hori baino  
gehiago esaterik. Ikusiko dugu,  
gure jokamolde eta sentiera sozia-  
lean balio absolutuak (beste modu  
batera) menturaz badaudela egu-  
noroko bizitzan, aski razionalak  
direnak praktikan!

1) Atentatu bat dago: nik ez  
dut uste jendearen sentimendua  
berdina izaten denik hildakoa  
haur bat izan, Goardia Zibil bat,  
torturatzaile bat, txibato bat,  
Carrero Blanco denean... Behar-  
bada sentimenduak atentatu  
batzuk absolutuki gaitzesten  
ditu, beste batzuk ez hain absolu-  
tuki... Baina jendea "landugabea"  
da! Horregatik jende xumearen  
oso gainetik ibiltzen diren inte-  
lektual subornagaitz batzuek, ara-  
zoa "razionalizatu" edo "objekti-  
batu" nahirik (pseudorazionaliza-  
tu, ene ustez) bizia bizia dela  
esango dizute, eta hilketa guztiak  
berdinak eta berdin gaitzesga-  
rriak direla. Jainkoaren begi infi-  
nitoki urrutietatik seguruenen bai,  
baina hurbileko gizon-emakume-  
en sentimenduen mailan aldiz  
hori ez da egia. Ondo dakite  
atentatuen berri ematen duten  
komunikabideek, eta sentimen-  
du herritar espontaneo horrega-  
tixe "zuzendu" beharra duten  
intelektual horiek beraiek. Baina  
sentimenduen "arrazoizkotasuna"  
aintzat hartzeak bereizketak onar-  
tzea dakarrenez, eta horrela hilke-



ta batzuk agian nahiko "ulerga-  
rriak" gerta litezkeenez, eta hori  
ja politikoki joko "arriskutsuan"  
sartzea denez, arrazoi absolutueta-  
ra jotzen baldin bada, jotzen den  
bezala, "bizitza sakratua da" esti-  
loak (arrazoitu behar izatetik ihes  
egiten bada, alegia), ez digu ezer  
laguntzen<sup>35</sup>. Beraz, hoberik ez  
dugun artean, behin-behineko  
konklusio honek lagun diezagu-  
ke: sentimenduek ez digutela  
balio kriterio ziur bezala esan  
dugu; baina guztiz kriterio gabe-  
ak ere ez dira: hain zuzen, hilke-  
ten artean berezten jakinez, kul-  
tura bat azaltzen dute, kultura  
"objektiboa", gertakariak balioes-  
ten dakiena, bereizketarako krite-  
rioak dituen- eta, absolutuak  
izan gabe, lagun liezagukete  
beharbada soluzioaren bilaketan,  
razionaltasun dialogatu batean  
orientatzeko. Sentimenduetan ere  
kultura bat espresatzen baita  
(atentatua egiten duenaren senti-  
menduetan ere bai, ez haren ideia-  
tan baino gutxiago), eta kultura  
batek badu bere arazoizkotasuna,  
bere "objektibitate" hortaz, gurea  
ez bada ere. Horregatik zen ezin-  
besteko abiapuntua erlatibismoa.  
Erlatibismoak bereizketak egiten  
irakas diezaguke. Bereizketak egi-  
nez, agian ez zaigu dena ulertezin  
berdintsua agertuko, graduak eta

ñabardurak nabariko dira, gauza  
ulergaitzago eta ulergarriagoak  
suma daitezke.

Baina kultura batean, kultura  
erlatibo batean hortaz, dena erla-  
tibo ote da?

2) Eman dezagun berrogeita  
hamar mila gipuzkoar batera gon-  
bidatu ditugula afaltzera: zahar  
edo gaixoren batzuk kenduta,  
nolabait ezinduak, ziur egon gin-  
tezteke bat bakarrak ere ez duela  
zopa jatean zurrut-hotsik egingo.  
Zer nahi dugu arau sozial absolu-  
tuagorik? Kostako da Moisesen  
Dekalogoan beste bat aurkitzea  
zinez halako absolutuki agintzen  
duena. Halere, agindua bera ez da  
zentzu izugarrikoa (ez ahandzi,  
ordea, gerora balio erlijioso edo  
moralak izan den asko, higiene edo  
kortesiako agindutxoak izanez hasi  
dela!). Eta norbaitek arrazoia  
eskaten badu, ea zergatik ez den  
zurrut-hotsik egin behar zopa  
jatean, seguru samar nago berro-  
geita hamar mila afaltzarretatik  
inork ez dituela arrazoi oso apalak  
eta erlatiboak baino ematen jakin-  
go. Izan ere, lagunartean gaudela,  
elkar gogaitarazi nahi ez dugula,  
albokoaren begirunea eta abar., bada  
nahiko arazoizkoa zurrut-hotsik  
ez egiteko; baina beste kultura  
batean, bestela ohiturik bageunde,  
beste presupostu batzuekin, ez



luke izango zertan halaxe izan. Beraz, arrazoiketa oso ahulak, baina "sentimendu" oso sendoak eusten dio oso finko konbentzio txiki horri. Beste era batera esanda, historiko eta kulturalki erakia dagoen arrazoizkotasun arrunt onartu batek, ez besterik.

Baina ni seguru samar nago, esate baterako, oraintxe berton zuek entzuleongandik inork ez didala irribarrez jeiki bere aulkitik, zerbait esatera bezala niregana hurbildu eta konfiantza guztiaz, zast!, begi bat atera edo belarri bat ebakiko; eta barka adibide drastikoa. Edozein momentutan edozein lagunengandik holako agresiorik susmatu ahal, ez behar, izango bagenu ezingo ginatete munduan bizi! Eta horixe da kontua: holakoxe hamaika mila ziurtasun absolututan oinarritua dagoela elkarbizitza, hots, deklaratu gabeko mila balio absolutu dagoela praktikan, beren fundamenteu "razionala" oso erlatiboa baino ez dutenak ezbairik gabe, haiek direlako arrazoizkotasunaren gizalegezko tratuaeren egiazko fundamentua. Beraz, horrelako balio absolutu batzuk elkarbizitzaren isilpeko premisak izan

litezke; gizarteko ekanduak izan litezke soilik; agindu implizitu edo esplizituki deklaratuak izan litezke, eta denak nahiko arrazoizkoak agertu gure bizitzaren antolaketan, arrazoiketa filosofiko handiek sostengatuak izan gabe ere.

3) Eta berdin-berdin da posible alderantzizkoa, absolutuak deklaraturiko balio batzuk egotea, arrazoiketa handiekin (pseudorazionalki) absolutizatuak eta legeak ospetsuki aitortuak ("Giza Eskubide Naturalak" esate baterako) eta batere absolutuak ez izatea praktikan, ez sentimenduan, ez inon, itxurazko arrazoimen ilustratu faltsu batean baino: ikus tortura, adibidez. Eta ez dut esaten tortura kasuak daudelako (bekatuak dauden eran), ez, beste kontsidero batzuen lehenespengatik baizik, antolaketa publikoak alde aurrez onartu egiten duelako horiek nahikoa lasai egon ahal daitezela (atxilotuari buruzko legeria "antiterroristaz", adibidez); eta gero gizarteak nahikoa lasai onartu duelako publikoki, horiek egotea ritualeko protestaren batzuk baino gehiago egin gabe. Hau esaten dut ez dagoelako berez balio sakratu deklaratu

bati egiaz errealitatea emango dion kultura bat, paper bat baizik (eta papera papera da). Espainiako kulturaren zakarkeria onartua baitago forma publiko arrunt bezala, abereen tratutik hasi eta polemika intelektualetaraino, eta kultura horretan torturak toleragarriak dirudielako, eerginkorrek baldin badira...

Gure erlatiboaren mundutxoan bada, balioak eta balioak daude, absolutuak eta absolutuak. Izan, balioak ez dira inoiz absolutuak, baina zirkunstantzia batzuetan baliagarritasun absolutua dute. Ulertuko da balio beraiek absolutuak ez izatea bankari arteko harremanen kode moralean, Elizan, bere existentzian kordoka sentitzen den komunitate edo nazio txiki baten minberatasunean. Beraz, "errespetuak" beste zerbait esanahi izatea horietako bakoitzean. Eta "absolutuki" iraingarri edo mingarri ere bakoitzarentzat beste zerbait izatea.

Horrela dakusagu praktikan absolutuak ez duela esan nahi egiaz fundamenteu absolutua duela; erlatiboak ez duela subjektiboa soilik esan nahi, eta honek ez duela indibiduala eta kapritxosoa, bakoitzaren apetazkoa soilik esan nahi<sup>36</sup>. Balioen baliagarritasuna, zinezko objektibitatea (onargarritasun intersubjektiboa) zertzen duena gizarte bizitza eratzen duen gizatasuna edo giza esperientzia da. Bere jokamoldea berak antolatu, egokitu, doitu beharra daukan animalia dugu gizon-emakumea, hori doitzen dion berezko instintorik edo mekanismo innatorik ez baitu bestela. "Animalia gaixoa-ren" sena falta kulturarekin bete behar dizu berak, hots, elkarbizitza arautzen duen ordenamendu moralak, hori objektibatzen duten instituzioak asmatuz (A. Gehlen). Grekozko ethos eta latinez mora-



lis berbek ez dute horixe baino esan gura: jendearen ekandua edo ohiturak eta horiei dagokiena. Moralak banakoaren eta taldearen interesak harmonizatzen ditu. Eta kideen arteko harreman moldearen arau edo eraketa gabeko, moral gabeko, elkarterik ez dago, ez txiki ez handirik. Gizarte bakoitzak ditu harreman horiek eta elkarren arteko jokamoldea gidatzen edo eratzen duten bere balioak, bere esperientzia historiko-sozialaren arabera (ezin dituzte balio berdinak eduki basamortuko artzain-gizarte batek eta tribu armatu lur berrien konkistatzaile batek). Haurrak balio horiek ikasi eta barneratu egiten ditu; horiekin egiten da pertsona gizartean, bere buruaren jabe, besteekin kide eta pareko. Beraz, bere "sena" bezala izango du hori, "bigarren natura" bat bezalakoa (baina kulturaren produktua!), edozein gorabeheratan bere jokamoldea jendarteangidatu eta arautu ahal izateko. Kontua da, zer egin eta nola jokatu gizarte batean ordena hori eta balio horien baliagarritasuna, adostasuna, zerbaitegatik puskatu egin denean, h. d., krisiak elkarbizitzaren oinarriak, instituzioak bezala arauak ere, apurtu dituenean. Hauxe baita gure kasua.

Gure tragedia da bizi dugun kulturaren zurrutotsik ez egitea guretzat absolutua dela eta ez hiltzea edo ez torturatzea ez dela absolutua.

Horrek ez zuen kritika bat izan nahi: errealitatea horixe da. Beraz, zer egin?

### **Krisia ari badu**

Balioak tradizioan daude; eta tradizio ezberdinak daude. Maizenik, tradizioarekin bat datozena, gizarteak moralizat hartu

ohi du; inmoral, etimologikoki, "ezohikoa" besterik ez da hain zuzen<sup>37</sup>. Haatik ohiturak aldatu egiten dira adin batetik bestera (larriek sori duten zenbat gauza debeku dute hurrek), aldatu sexu batetik bestera (ez da urte asko emakumeek galtzak jaztea eskandalu bat zela), garai batetik, herri batetik, kultura batetik bestera. Poligamia inmoral ote da? Mohamedar batentzat Jainkoak berak onetsia da; europar batenzat bere erlijioak gaitzetsia, Zuzenbideak zigortua, gizarteak gaitziritzia<sup>38</sup>... Beranduena hemen gure kontzientzia, emakumearen diskriminazioaren arloan sentiberagoak bihurtuak gaude gaur eta, errebelatu egiten da: onartu ezinezkoa da, protestatzen dugu, han ohikoa dela eta horregatik ongi dagoela poligamia, eta emakume mohamedarrek karrikan beloa eraman behar izatea aurpegia ezkatatzeko, are milioika neskatok jasan behar izatea erdaintzeta femeninoa edo mozketaren genitala, etab.! Hori dena, ohikoa delako ez dago ondo, argudiatzen dugu, ohitura barbaroa da, giza sakrifizioen ohitura mexikarra edo Inkisizio kristaua barbaroak ziren bezala, horren aurka joan beharra dago! ("Arrazoiaren izenean", gehitzen du norbaitek. Islamdarrek arrazoimenik ez dutela pentsatzen jarraitzen dugu beharbada Europa ilustratuan)... Jarraitu zenuten Egin egunkarian Alizia Stürtze, Arantza Campos eta beste emakume batzuen artean iaz gai hauei buruz erabili zuten polemika? Benetan izugarri interesantea izan zen. Eztabaida hark zerbaite garbi utzi bazuen, arazoa korapilotsua dela izan zen: tolerantziaren printzipio politarekin ez dugula ezer egiten ("han ohitura hori badago, bego"); baina Lehenengo Mundu

inperialistatik Hirugarren Mundu kolonialean ere gure "arrazoiarekin" interbenitu nahiean ez dugula ezer egiten, interbentzionismo koloniala ("moral" orain!) itsuski jarraitu baino. Arazoa konplexuegia da printzipio sinpleekin konpontzeko.

Hirugarren Mundua utzi eta etxean ibiliz: Frantzia, Ingalaterran, Alemanian, h. d., Europako Estatu modernoetan, gutako edozein bezain "moderno" den mohamedarrik eta bestelakorik anitz badago ja eta "multikulturalismo" horrek hainbat arazo planteatzen du egunoro, bitxiak batzuetan (administrazioak onar lezake emakume baten pasaporteko argazkia belarria estalirik?), gehienetan larriagoak (zigortzeko ote dira odol transfusio bat ez baimentzeagatik haurra hiltzen utzi duten gurasoak?). Aitortzen dut ez naizela gehiegi interesatu izan (ez interes faltagatik, ez dut astirik!) eta ez ditudala aski iraunkorki jarraitu azken urteotan Europan egiten diren hausnarketak arazo hauei buruz. Lan handia egiten ari baitira. Europa ikasten ari da balio eta kultur diferentziekin bizitzen. Informazio defizit handi bat behar dute izan, demokraziaren defizit handia azkenean, balioen eztabaidan gure artean dabiltzan gehienek ni baino hobeto informatuak ez diruditelako egiten bada kontu. Defizit demokratiko hori, bortxaren arazoa egundo planteatu nahi ez izatean, ikusten da esate baterako. Gizarte multikultural bateko diferentzia kultural bezala, balio (erlatiboki) kontrarioen topetakoa bezala, alegia, eta dogmatikoki beti termino kriminalista soiletan eztabaida guztia arras sinplifikatzen dute, oso eroso. Nik neure deserosotasunetik bakarrik hitzegin niezaizueke.

Niretzat balioen konflikto nahasi batean murgilduak bizi gara: gizarte erditradizional, erdi-moderno, kontserbakoi, anarko, erlijioso, pagano lardaska batean, ez mundu bateko ez besteko, trantsizio krisietan ohi den eran. Platonen kobazulo historikotik irten dugu "arrazoiaren" egun-argira, baina egun-argitan, jabalaez, ekaitza ari du gogor. Euskal mundua ostots erauntsipean dago aspaldi. Batzuentzat balioa dena, beste askorentzat ez: edo harentzat desbalioa delako (nik uste dut jende askori balio erlijiosoekin hori gertatzen ari zaiola), edo harentzat indiferente delako (ekologia, inposatu nahi zaigun "Europako" ideia arrotza da bat baino gehiagorentzat), etab. Gatazka nagusia norbere kontzientzia bakoiztarraren eta, zalantza gabe maite dugun, batzuetan desesperatuki maite ere, baina ja "konbentzitzen" ez gaituen gizarte honen balioen artean daukagu. Ez familiak, ez Estatuak, Elizak, lanak, gure hizkuntzaren egoerak, ez gure borrokak, poesiak, euskal kantak..., bizi dugun ia ezerk ez gaitu asezten eta konbentzitzen. Baina ja utopiaren artizarrik ere ez zaigu geratzen. Beste mundu bat nahi dugu eta beste mundurik ez da ageri. Gurea hondoratuaren erresistentzia da. Mundua aldatu nahi eta ezina, eta etsitzea ere ezina. (Kasu, baina! Ez bedi ulertu kinka hau negatibotzat daukadanik: horrelaxe dela konstatatu bakarrik egin nahi dut. Neuri ez zait batere egoera tristea iruditzen halaxe egotea: askatasunaren gure lehenengo posibilitateak dira apika aspaldiko mendeetan. Krisia, guk hura menperatu ordez berak gu menperatzen bagaitu bakarrik da txarra).

Bestalde, demokraziarekin ez dira ongi etortzen balioak: de facto balioen munduak manikeismorako joera du, balioak polaritatearen forman agertzen direlako beti (ongia/gaizkia, egia/gezurra, zuzena/okerra, ederra/itsusia, maitasuna/gorrotoa, garbitasuna/zikinkeria). Are gehiago, berez balio gabeko edo neutralak diren polaritateak ere balioz kargatzen ditugu, arra/emea, handia/txikia, zuria/beltza eta bietako bat polo negatiboa bihurtzen dugu. Izan ere balioen munduak giza bizitza osoa inbaditzeko eta guztia "etikoki" markatzeko joera du: iker-tzaile zientifikoak egia bilatzen du (de facto), gero egia bilatzea izpiritu bat bilakatzen da, egizalatasuna obligazio etikoa (deontologia) eta komunitate zientifikoren harremanetako zutabe bihurtzen da... Balioen mundua indiferentziaren kontrarioa da, hortaz. Baina demokraziak gizartean indiferentzia espazioak egotea maite du: indiferentzia ideologikoa edo neutraltasun erlijiosoa bereziki. (Estatu demokratikoek beren burua defendatuz ibili behar izaten dute agresio erlijioso edo ideologikoetatik: dibortzio legean, abortoan, etab.). Hots, gatazkak egotea balioen artean edo balioen esfera diferenteen artean (etika eta politika, etika eta negozioak edo familia eta Estatuak, etab.), pertsona edo taldeen helburuen artean. Hau ez da inor kezkarazteko modukoa. Alderantzikoa izango litzateke kezagarria.

Krisiak erasotzen dionean, gizartea defentsiban jartzen da (organismoa jartzen den bezalaxe, eta kalentura horren espresio naturala besterik ez da, gizartean ere!). Normala da. Ez da txarra gizarteak edozein aldakuntza eta berrikeria ez behingoan onartzea.

Orduan, saihestezinezkoa da ikuspideen talka. Gaur gertatzen ari zaiguna ez da ezer anormala. Beharbada osasuntsutik pasatzen dena beti ordena santuko izan diren burgestxikien kale-tropa liberal guztia aztoratuta ikustea da, "bere" ordena ongi babesteko egur gehiagoren eske, kazetariak, filosofoak, poetak, guztien aitzindari<sup>39</sup>.

Eta zer egiten du Estatuak, Botereak? B. Russell behatzaile britaniko finak hauxe dio: "Es opinión de toda autoridad que las disputas en las que ella no toma parte no son en modo alguno deseables, pero que, en aquellas en que la misma toma parte, la virtud estriba en procurar la victoria de dicha autoridad"<sup>40</sup>. "Bertute" hau indartzeko, Botereak mila maniobra modu dauka: izpiritu nazionala edo klasearena sustatu, patriotismoa berotu, barruko edo kanpoko etsaia ikaragarritu, Ongiaren defentsan masak mobilizatu<sup>41</sup>.

Krisiak, ondotxo ikusten dugu, eztabaida soziala pizten du (egunkari batzuk gerra horretako organoak bilakatzen direlarik). Zer deritzozue, eskolan, Unibertsitatean, irakasleok eztabaidatu egin behar ote genituzke gaiok?<sup>42</sup> Ez dakit baina geu esperimendu arriskutsuak egiten hasi baino, ausaz jada egindako esperientzietan hobe dugula fidatu pentsatuko nuke neuk. Erantzun absoluturik ez dut uste dagoenik, eta ez dut uste behar dugunik, h. d., arazoa irakaskuntzan ez nahitaezkoa eta ez osoki tabua bihurtzen daukagu. Beti ere, aurreneko bertute pedagogikoa arazo hauetan taktoa izaten da. Gero, eskolan eta Unibertsitatean baldintzamendua ez da berdina. Haurrak, nik uste, ez luke behintzat etxean entzuten duenaren kontrarioarekin txokerik

eraman behar eskolan. Printzipio orokor bezala uste dut, printzipio absoluturen bat baldin badago, irakaslea ez dagoela inor konbertitzeko. Unibertsitateaz bezainbatean ez zait iruditzen desegokia, gurearen ez oso bestelako larrialdi batean Max Weberek arrazoitu zuen ikasgelak eztabaidagune politiko bihurtzearen aurka. (Unibertsiterako esanak -mutatis mutandis- are gehiago balio du eskolarako). Gogoeta hau Lehen Mundu Gerra galdu eta Alemaniako Unibertsitateetan ikasle eta irakasle gorriak, txuriak, kontserbadoreak, iraultzaileak, pazifistak, "katedra-sozialistak" (batzuk ilustre askoak gainera: G. Schmoller, L. Brentano, W. Sombart), guztiak guztiak agiraka mingarretan zebiltzanekoa da.

M. Weber era guztietako irakasle "apostoliko" etsaia da<sup>43</sup>. Hiru aldetatik argudiatzen du: zientziaren izenean, irakaslearen zereginaren izenean, ikasleen izenean. 1) Zientziaren askatasun akademikoak eskatzen du balioespene etiko edo erlijiosoetatik menperagabea izatea; hein berean, ordea, interes politikoeekin nahasgabea eta halakoetatik independente jardutea. Irakaslea zientzia azaltzeko dago, ez balioesteko. Medikuak nola sendatu irakasten du; baina bizitzak bizitzea merezi al duen esateko medizina ez asko, ez gutxi daki. 2) Irakaslearen zeregina zientzia lantzea eta ikasleak zientziaren bidean trebatzea da; ez ikasleak politikoki norabide batean edo bestean orientatzea. Irakaslearen hautu politikoa edo balio sistema bere kontu pertsonala dira, ez dute zientziarekin parterik. Zientzia eta bere iritzi etiko-politikoak nahasiki transmititzea ere amarru egitea litzateke: bera zientzian



baita aditua eta autoritatea, balioetan edo etikan ez. (Etika ez da zientzia). Irakasleak espreski eztabaida politikoa nahi baldin badu, onestasun intelektualak zein zibikoak, bera ere eztabaida hori egiteko dauden toki publikoetara joan dadila agintzen du, beste edozein hiritar bezalaxe; edo, bestela, gelak Alderdiei beren karpaina eta eztabaidetarako irekitzea, berak gogoia duenean bezalaxe, besteek nahi dutenean eta nahi duten gaiez aritzeko Autoritatearen abusua da irakasleak bere posizio pribilegiatua manupekoak ideologiko-politikoki influentziatzeko erabiltzea, edo hauek beren iritzi politikoak jendaurrean agertu behar izateko paradan jartzea ere. (Antza, irakasle batzuek lanak dauzkate katedra eta konfesalekua bereizteko). 3) Ikasleak eskubidea du, inork inposa ez diezaion menturaz batere axola ez zaion eztabaida bat; edo eskubide berdina daukanoiznahi beste edozein gairi buruz eztabidak berak inposatzeko. Ikaslea ezin da izan egiazki irakaslearen solaskidea: bestela isilik egotera obligatua egoten

delarik, orain irakasleak "emana" du hitzegiteko askatasun/obligazioa; irakaslearekin iritzi diferentziarik egonez gero, bien artean ez dago parekotasunik (bat erakundeak autoritatez jantzia, bestea hari begirune instituzionala izate-ra hezia, irakasleari, agian beste ikasleei, edo hauen lehiari, aurre egiteko lotsaz, azterketen beldurrez, etab.). Irakaskuntzan auzi hauek nahastearren arras kontrarioa da Max Weber.

Horregatik ez da egia, hala ere, M. Weberek balioen eztabaidari arrazoizkotasun eta zentzu oro ukatzen diola, batzuetan haren erlatibismo beti gogotik azpimarratutik ondorioztatuta nahi izaten den legez<sup>44</sup>. (Aitzitik, erlatibismo horren onarpena, arrazoikotasunaren ezinbesteko aurrebaldintza da haren ustean balioei buruzko eztabaida ororentzat)<sup>45</sup>.

Balioei buruzko eztabaida bat zentzuazko lekuan eta zentzuz egiten denean bakarrik da zentzuazkoa. Eta zentzuz egiteko, aurretik mugatu egin behar da, zein marku edo lekutan, zein planteamolde edo posiziotatik, doi-doi

zer eztabaidatu nahi den. Indarkeriaren kasuan, adibidez. Abiapuntutzat suposa daiteke oker ez banago isilpean maiz suposatzen den moduan, eztabaidaren markua Ajuriaeneako Mahaiarena dela. Alegia, pro ala kontra, (ETAren) indargintzaz bi posizio bakarrik kabitzen direla. Presupostu horrekin dabilenarentzat, ulertzkoa da, indargintzaren aurka eman ohi diren arrazoiak analizatzen eta kritikoki eztabaidatzen dituen "aitzakia bila dabilela" iruditzea<sup>46</sup>. Suposatzen bada, aldiz, hirugarren posizioa, ez bat, pila bat baizik kabitzen direla razionalki Ajuriaeneako Mahaitik kanpo munduan, beharbada gauzak bestela agertuko dira. Beharbada gaurko eztabaida guztiaren razionaltasun falta da, hain zuzen, salatzen duena; eta razionaltasun pittin bat da bilatu nahi lukeena. Izan ere, eztabaida razional bat nahi baldin bada (geroz eta sinesgaitzagoa bilakatzen ari dena) premisarik elementalena da kontrarioari razionalitatearen bat suposatu beharra dagoela. Hori ukatzera doazen argudio mota guztiek, orduan "absolutuek" (eztabaida razional bat nahi zela suposatu baita), ez dute logikarik, irrazionalak eta totalitariak dira errotik. eta. Alderantziz, razionalitatea printzipioz aitortu badiot, gero posible dut, adibidez, Hipercorren eta poste elektriko bat botatzearen artean razionalitate mailak bereiztea eta eztabaidatzea, edo *orain jada*, edo Euskal Herrian konkretuki (mundu guztirako balio behar duten planteamenduekin ibili gabe) borroka biolentoa razionala ote den planteatzea, etab., razionalitate zeroaren kasuan zentzurik ez dauka. Indargintza oro absolutuki gaiztoa bada, beti absolutuki da eta

izan da absolutuki gaiztoa: indarginarekin ez dago zer eztabaidaturik, elkarrizketak ez du zentzurik, gehienez ere beti kondena bera errepikatu eta bariatu egin liteke. Eta zer duda, horren ukoa elkarrizketa dela, hain zuzen, Ajuriaeneako Mahaiko "demokrata" batzuek bilatu eta irakasle apostolikoek justifikatu nahi dutena absolutuki.

Beraz, eztabaida forotarako ikasgelak utzirik, gizarteaz eztabaidak berez baduen espazioan, non kokatu gu geu? eta non kokatu eztabaida bera edukinaren mailan? Eztabaidarako edo elkarrizketarako baldin bada, eztabaida/elkarrizketarako posibilitatearen aurrealdintzetan paratu beharko gara geu, h. d., razionaltasun elkarbanatuaren suposizioan (objekzioak batere ez baita hori indargintzaren zuzentasunaren aurka!)<sup>47</sup>, edo balio ororen erlatibotasunean. Horrela bakarrik ez du neure buruaren onarpenak bestearen ukoa galtu beharko.

Eta non kokatu eztabaida (zein objektutan)? Suposatzen da, balioei buruzko eztabaida dela. Baina de facto, pertsonena eta intentzioena dela ematen du. Ikusten baitugu, ikusi, biolentzia eta ideiak ere eztabaidatzen direnean, eztabaidaren zati handiena eta batez ere sutuena ideia horien edo ekintza haien jabeen "analisi" eta deskalifikazio pertsonaletan zentratzen dela. Ekintza batzuk gaitzesten direnean ere egileak gaitzetsiz egiten da. Itxura guztiz, kritiko horiek historia eta bilakera soziala klabe biografikoetan ikusten dute; espezifikoago, klabe moralistan; eta hau, askotan, termino psikoanalitikoetan espresatzen da. (Gaixoa, gaiztoa, identifikazio isil batekin).

Hurkoen gogo barrua bera aldatzeko bokazio gaintezina duen jendearekin kontu eduki behar da. Alegia, denok nahi dugu mundua piska bat aldatzea, eta munduarekin, inguruko jendea ere piska bat aldatzea, denoi gustatuko litzaiguke. Saiatzen gara ideiak, erakundeak, gizarte antolaketa, kultura aldatzen; eta, ondorioz, jendea ere bere burua aldatuz joango dela, espero dugu. Baina jende batek ez du nonbait erakundeak edo baldintza sozialak aldatu nahi, zuzenean jendea bera eta arimak baino. Erruki gabe horien barnetasuna inbaditzen dute, su batean interpretatzen dute, larrutu dute eta kondenatu, eta azkenean beste aukerarik ez diote uzten arras konbertitu ala kiskaldu baino. Saulo apostolikoak (askotan izaten da bera konbertitua) ezer ez du ikusten, dena balioetsi egiten du. Hitzek eta ideiek berek, izan edo esan nahi ez baina balio egiten dute; ez dira diferentek, originalak, diskutiagarriak, etab., baizik onak ala gaiztoak, eta kito. Elkarrizketa eta eztabaida eskatzen badu, zure barrura sartu eta bortxatzeko da. (Eta, apur-apur bat, demokrata on bat izan behar duela entzuna duelako ere bai). Egitan ez du ezer gutxiago nahi, ikusi eta ulertu baino. Aldearekin badaki jakiteko guztia; zeren eta, zer dagoen jakiteko, aski du jakitea zer egon beharra dagoen. Inori arrazoitu ordez, bere arrazoiak ezaugarriak dakiola exijitzen du. Eta inork bestela pentsatzea bere arrazoiak ez onartzea dela begitartzen zaio, iraindua bezala sentitzen da eta iraindu egiten du. ETA ez da problema politiko edo sozialen bat, baizik morala; h. d., inmoralak (gizatzarkeria da, krueldkeria, etab.).

Hemen, horixe uste duzuela ziur banago ere, ez naiz gure arteko Euskal Herri txiki honetako komeriak deskribatzen ari. Alfred J. Ayer Oxforden Logikako Irakasleak dioenez balioak eztabaidatu nahi izaten direnean, beti gertatzen omen dena bakarrik ari naiz adierazten. Balioak eztabaidatzen hasi eta pertsonak eztabaidatu... Honek esan nahi du hemen krisia dagoela. Eta krisia dagoenean mundu guztian bezalaxe hemen ere balio diferenteen gatazkak mina sortzen duela. Eta min giro horretan bere "betiko ordena" etsian zemaitua sentitzen den meneko "txintxoak", edo "betiko ordena" gotorraren abokatu arbinduak. Hauxe ei da hauek egiten dutena, bereak ez baino beste balio batzuekin datorren "gaiztoarekin": "Decimos que es imposible discutir con él, porque ha tergiversado o no ha desarrollado el sentido moral; lo cual significa, sencillamente, que utiliza un sistema de valores diferentes del nuestro. Comprendemos que nuestro propio sistema de valores es superior, y, por eso hablamos del suyo en términos inapelables. Pero no podemos formular razones para demostrar que nuestro sistema es superior. Porque nuestro juicio de que es así constituye, en sí mismo, un juicio de valor, y, por lo tanto, se halla fuera del alcance del razonamiento. Y porque el razonamiento nos es inútil cuando pasamos a tratar puras cuestiones de valor, como distintas de las cuestiones de hecho, es por lo que acabamos recurriendo al simple desprecio"<sup>48</sup>.

B. Russellek antzeratsu haute-man du. Ekintza "inmoral" bat juzgatzen denean, ulertzen ez dugunez, esplikazioa bilatzen dugu: zergatik egin da ekintza

gaizto hori? eta, ageriko ekintza barik sakonagoan ikusten ei den "karakterea" gaitzetsi ohi da. Azalpena, gaiztoaren arrazoia bilatzetik, gaiztoa egilearengan suposatzerara desbideratzen da. Ekintzaren gaiztoa karakterearen gaiztoarekin azaltzen da. Beste batzuetan, karakterea bera perbertitu izango lukeen hurrunagoko arrazoi batean bilatzen da azalpena: erlijioan, ideologian. Efektuak ez, kausak borrokatu behar ei dira. Biolentziaren "azkeneko arrazoia" abertzaletasuna da. Hori da, esango du konbertitzaileak, borrokatu eta suntsitu behar dena! Erlijioa da ezabatu behar dena! esan zuen razionalista ilustratuak. Bere barruan desegin eta birregin behar da pagano, turko, protestante, sorgin, komunista, abertzale gaizto hori... Eztabaida balioetatik pertsonetara, psikologiarra lerratzen da; estrategiatik (borroka armatua) haren iturritzat ikusten den ideologiarra; ekintzen balioespentetik taldeen eta pertsonen barnera, moralera, psikologiarra, pentsamendura, kulturara. Ikaragarria baita batzuen kontzientziak inbaditzeko eta gatibatuzko irrika.

Hans-Martin Pawlowski juristak Alemanian fenomeno hori bera sumatzen du.

Badakizue gazte talde erradikalen xenofobiaren arazoa dagoela, langile etorkinei egindako erasoekin, asilanteen etxeen erreketekin, etab., drogaren arazoa eta ez aipatzearen. Orduan batzuek, erruduna balioen krisia dela eta, eskolan ipini gura dute soluzioa: eskola sakonago permatu behar dela balioen irakaskuntzan, etab. Batzuek aprobe txatu dute eskolan erlijioaren irakaskuntza berriro gehiago lantzea galdatzeko, pertsonaren balioa, hurkoaren maitasuna eta giza-irudi kristaua irakasteko... Haurraren barrua inbadituz konpondu nahi dira arazo sozialak, dio. (Eta efikazia mailan izan liteke egia, izan ahal. Ez da, ordea, Estatu demokratikoarentzat bide legitimoa)<sup>49</sup>.

Honekin arazo bitxi batean jo dugu: noiz daude balioak eztabaidan? eta zer eztabaidatzen da zehatz-mehatz, balioak eztabaidatzen omen direnean?



## Balioen (indarkeriaren) eztabaidaz

Demagun hilketa bat egon dela. Berez, ongi ala gaizki egon daiteke. Demagun asasinatze bat izan dela. Gaizki dago (A. J. Ayerekin jarraitzen dut)<sup>50</sup>. Ekintza horren gaizkia egiten duena ez da ekintzan bertan horren deskribapeneko elementuen artean (nor-nork, non, zer, zergatik, etab.), aurki genezakeen ezer. Motiboak ere sentimentalak, politikoak edo nolanhikoak izan litezke, ezin dira berak "onak" edo "gaiztoak" bezala deskribatu. Zerk egiten du, orduan, ekintza horren ongia ala gaizkia? Ba kasu konkretu baten baldintzei balio sistema orokor eta ekintza horretatik independente den baten aplikazioak (izan dadila hori balio sistema juridikoa ala morala) kasu konkretuaren baldintzei. Hilketa hori egiaz asasinatze bat izan ote zen ala, beharbada, hilketa legitimo bat (tiranizidioa, etc.) ez da ekintzako elementu osagarri objektiboetan oinarritzen, hari egindako balio sistema baten aplikazioan baino. Balioak berak ez dira eztabaidatzen. Balio beraien eta kasu honi egiten diogun aplikazioaren artean hainbat tarteko maila behar da eskaileran.

Ba al dago balioen eztabaidarik? Zer da egiaz balioen eztabaidan dagoena? Mendebalean eztabaida-tradizio handia daukagu, zein ote den erlijio egiazkoa, teologia egiazkoa, filosofia egiazkoa..., eta, nahi baduzue, poesia egiazkoa ere.

Euskaldunok ezin dugu ahaztuko Yehuda Ha-Levi judu nafarra, 1070 aldera Tuteran sortua, El Kuzarí-ren autorearen ("Libro de la prueba y el fundamento sobre

la defensa de la religión menospreciada"), h. d., "egiazko errebelazioaren" (judaismoaren) defen-datzailea islamaren eta kristautasunaren filosofien aurka. Filosofo eta teologo kristauak (Abelardo, etc.) hainbat aldiz imitatu dutena geroago, egiazkoa erlijio kristaua dela demostratuz noski, judaismoaren eta islamaren aurka. Eta apologistek katolizismoa dela egiazkoa, protestantisismoaren aurka, edo alderantziz, beti senperren lanak ibili dituzte hura demostratu nahian.

Baina Erdi Aroan ote gaude? Polemista apostolikoren batzuk izan ezik behintzat, beste gehienok ez.

Egiaz egon dagoena, gure moralaren gehiagotasunaren aldarrikapenak izaten dira: alegia, Lepantoko "gure" jainkoaren gehiagotasuna berriro beste jainko sastar guztien gainetik! Baina hori, ozenago eta masibago oihukatzeagatik ("gehiengo!") ez da razionalagoa bihurtzen. Balioak beraiek, zuzenki eta abstraktuki, ez dira guretzat "Jainkoaren hitz"agoak ala gutxiagoak (edo razionalagoak ala gutxiagoak) eratararrentzat erlijioak izan zirenak baino.

Orduan, beren fundamentu jainkotiarren aldetik ezin badira

eztabaidatu, agian balioak razionalkiago eztabaida litezke ondorioen (beraz, komenientziaren) aldetik. Halaxe da, bai. Hobeto esan, horixe izaten da kulturek astiro-astiro, urteetan eta mendeetan egin dutena balioekin, ondorioetatik ikasiz, hots, eskarmen-tua hartuz, transformatuz, eboluzionatuz (moralki). Horrela ikusikasten da balioek benetan balio dutena, h. d., egiazko balioak zer balio diren<sup>51</sup>. Horretarako kulturek mendeak eta mendeak hartu dituzte. Hori da gizadiaren gizatiartzeko, "zibilizatze" bidea. (Zoritzarrez, Euskal Herriak mendez-mende ikasita daukana biolentziarik gabe zer egin handirik ez daukala da nonbait). Uste dut, gure arazoaren goardiar korapiloa hementxe daukagula. Mendeei beraiena lagata, gaur korapilo hau zirt edo zart ebaki beharrekoa dugu, poliki-poliki askatzen ibiltzeko astirik gabe.

Bortxaren komenientzia (politikoa) eztabaidatzeko ni neu ez naiz gauza sentitzen. Ez dakit kontu hori nola kalkulatu beharko litzatekeen. Ez dakit zein termino eta zein markutan planteatu ahal izango litzatekeen hori. (Politikoek egin beharko zuketena eta egin ez dutena da, nik uste).



Dakidana, helburuen aldetik (Euskadiren independentzia, etab.) helburu mugagabeak zilegitzat aurreposatu beharko liratekeela, politiko nahiz moralki, eztabaidaren razionaltasuna tranpaz aurrebaldintzatua ez izateko; baina gaurko legeriaren izpirituan hori ez da horrela. Are legeriaren letran ere, bitartekoei gagozkiela, eztabaida hori egun ilegalizatua dago (publikoan beti izan da ilegala!); eta horrek esan gura du arras neutralki meditatzen hasi eta deskuidoan bortxa komenigarria dela ateratzen bazaizu, terrorismoaren apologia egiten duzula. Arrazoiketaren konklusio razional posible batzuk alde aurrez kriminalak dira alajaina! Hau funtsezkoa da eta kontuan eduki beharko lukete biolentziari buruz publikoan "eztabaidatu" nahi omen duten "demokratek": arrazoiak biolentziaren aurka bakarrik eduki liteke legalki. Ez da egia demokrazian guztiaz eztabaida litekeela. ETaren aurka bakarrik arrazoitu liteke argi eta garbi; ETaren alde gehienez ere disimuluz eta zeharbidez. Azkeneko ehun edo berrehun urteko Euskal Herriko historia gogoetatuz hipotesi batean, norbaitek, razionalki huts-hutsik, indarkeriaren komenientzia frogatuko balu (hipotesi soilean ari gara) legearen arabera kriminal bat izango litzateke. Demokratikoa, gaur, horixe da. Kondizio horietan, analisi historiko eta sozialez biolentziaren ezkomenientzia frogatzeko posibilitate razionala (errore posible gabeko egia) razionalki nulua da. Beraz, ezin da eztabaida intersubjektibo libre baten objektua izan; ezta haren emaitza ere.

Bortxaren zilegitasuna (moral) printzipioetatik behin betiko ebazti ezina dugunez, ondorioetatik

juzgatu ahal izateko ere dagoen zailtasun bakarra ez da politiko edo legal hori. Gutxienez gaur (indarkeria egin eta gero, alegia) zailtasunak oinarritzakoagoak ditugu. Demagun [1] aldizkaritxo baten zuzendaria naizela. Kalkuluak ateratzeko eta balioestekoa da nire espazio guztia. Lankide batzuk, zenbait harpidedun edo erosle eta irakurle tipo bat, publikazio kostuak, subentzioak eta beste elementuren bat. Aise gainbegira litekeen esparrutxo.

Praktikan, lankideen izpiritua zuzenki hauteman nezake, agian Jaurilaritzak txantaiatzen nau zenbait subentziorekin, etab.; egunero esperientziaren beste azterketa sakonagorik gabe gutxi-asko ikus nezake esparru honetan ETaren indargintzak nola intziditzen duen esparru honetan eta zeregin honetan. [2] Demagun herrialde bateko ikastolen edo AEKren arduraduna naizela, edo futbol talde handi batena, etab. Ikasle eta irakasleen mundua zabalago eta konplexuagoa da. Nirekin harremantzen den inguru sozialak biolentziari buruz dituen gorabeherak oro har nire enpresarentzat positibo ala negatibo diren juzgatu beharko banu oso zaila izango nuke kalkulatzea, baita zein terminotan kalkulatu beharko nukeen asmatzea ere. [3] Ekonomiarentzat duen ikuskizun bera, sektore aski mugatu eta kontrolatua izanik, agian kalkulatzeko agian errazagoa izan beharko lukeenak kalkulatzeko, ez du bate-re garbi dagoenik ematen beti baiesperen orokorrak besterik ez dira entzuten ("oso kaltegarria!"), baiesperaren inolako frogagarri-rik azaldu gabe<sup>52</sup>. [4] Baina ekonomiantzat zinez negatibo balitz ere, horrek ez du esaten Euskal Herriarentzat orain bertan

oro har positiboa ez dela orain bertan (abertzaletasuna pizten duelako, etab., mila arrazoizko modu aurkez liteke). Eta perspektiba luze-zabalagoan, nola erabaki historiari begira ez dela oso positiboa izan? Kantek esaten zuen bezala etorkizuna ikusi ahal izan beharko genuke jakiteko. Ikusmuga oso txikia baino ez dugu ordea, eta horrekin egin behar dugu historia. Beti da abentura moral bat. [5] Eta hori ere Kantek esaten zuen bezala sufrimenduak herriaren izpiritu moralak zailtzen eta gihartzen duela, etab., pentsatzen badugu, nola erabaki ETaren borroka ez dela izpiritualki, moralki, historikoki oso positiboa? Non aurkitu markoak eta kriterioak holakorik haztatu eta balioetsi ahal izateko? Nola jakiten da (jakin, ez imaginatu) "ETarik ez balego" hobeto egongo ginatekeen? ETari eskatzen duen dena demokratikoki behin betiko emango balitzai, edo ETak irabaziko balu, Euskal Herriak etorkizun zorionsu bat izanen al luke betiko?... Hau da: "¿Debió Bruto haber asesinado a César? ¿Habría asesinado otro a César si no lo hubiese hecho Bruto? Supongamos que, si no hubiese sido por Bruto, César no habría sido asesinado; ¿qué diferencia habría producido esto sobre la historia del Imperio Romano? Y, mirando más adelante, ¿cuál habría sido la diferencia que habría producido sobre la historia de Europa? ¿Habría existido, aun así, Shakespeare? Si aun así hubiese existido, seguramente no habría escrito *Julio César* como lo escribía. ¿Y cuánta diferencia habría producido eso sobre la felicidad general? Sencillamente, la pregunta cae toda entera en el absurdo..."<sup>53</sup>.

Konklusioa: aurreko urteotako errealitateari begiratzuz ohargarria baino gehiago da bortxaren arazak ez duela hainbeste urtetan eztabaidarako planteamendu politiko-moral serio bat ez duela hainbeste urtean aurkitu. Beharbada gaur gehiago esateko tenorea da. Eztabaida hori, ez bakarrik egon ez dago, baizik eta, gutxienez, egungo baldintza kultural eta legaletan, ezin da egon.

Ezintasun praktiko honengatik egiten da beti ihes printzipialismoa (printzipio absolutuetara). Printzipialismoa bera ezintasun berri bat bilakatzen da gero. Baina, esan bezala, zaila da mendebelean indarkeria oro har printzipioekin garaitzea. Zaila, ETArekin indargintza konkretua ere printzipio absolutuekin garaitu nahi izatea, Estatuaz zaldantzan jarri ezin litekeen zerbait sakratu bezala suposatzen ez bada behintzat ("printzipioz" zaila dirudiela, esate baterako, Euskadiren askatasunaren alde armak bidegabekoak jotzea, haren aurka bidezkoak baldin badira, Konstituzioko 8. artikulua araberaren diren legez). Balioa balioen alde ere, ordea, ezin liteke eztabaida, ikusi dugunez. Orduan?

Orduan, guretzat, alegia, ez indarkeria komenigarria dela, ez indarkeria absurdua dela, razionalki<sup>54</sup> tesi segururik ez daukagunontzat, konklusioa sinplea da: ja ez dela eztabaida hauetarako ordua. Kasu honetan orduak (*kairós*) eginbehar etiko urgente bat seinalatzen du: bortxazko egoera gairidituko duen egoera baten bilaketa. (Ados: ez "edozein preziotan!"). Hori ez da eztabaidaz egiten. Zerekin, orduan? Hobe genuke norbaitek baleki! Nolanahi ere uste dut, guretzat, edukitzerik ez dagoen arrazoi bat

edukitzen setatzea baino inportanteagoa soluzioa lortzea dela (izan ere beharbada guretzat errazagoa da hori nahi izatea, salbatu beharreko tesirik eta arrazoi segururik ez daukagunez); eta, beraz, soluzioa dela bilatu behar duguna. Eta soluzioa, uste dut (guretzat: hemen erabakiorra da bakoitza non kokatuta dagoen, nahitaez halakoxea izanzen baita gero haren perspektiba) ez genukeela imajinatu beharko ez Estatuaren garapenean, ez ETArekin garapenean bidetik. Eta honekin hitzaldi honen gaiak, eta nik ere bai, pragmatikaren muga jotzen dugu. Hori esperientziaren menpe dago (badira Euskal Herrian bake mugimenduak beste esperientzia batzuetatik zereginon inguruan informazio gehiago bildu dutenak; baina, hain zuzen pragmatikari buruz beste ezeri buruz baino are zaldantza gehiago dudana arren ene ustezko hiru eginbide arrenki apuntatzera mugatuko naiz ni.

### Zer egin? Hiru eginbide nahitaezko

Neure informazio eskasetik, iruditzen zait, soluzioa nahi bada, alde batetik a) elkarrizketa, b) erakundeen birrantolaketa edo erreforma politikoak behar ditugula; bestetik, c) kultura berri bat (edo gure kulturaren elementu berriak) landu behar ditugula.

Aurrena ohartu batzuk a eta b-ri buruz, kultura berriaz aparte mintzatzeko. Entzuten da, protestatzen, ETArekin negoziazio batean erakundeen birrantolaketa edo erreforma politikorik onartzea indarkeriaren txantaiari amore ematea dela, antidemokratikoa dela, etab. Eta iruditzen zait, demokrazia sakralizatu duen (eta, beraz, jada politika bezala uler-tzen ez duen) aingerukeria edo

inuxentekeriatik bakarrik uler daitezkeela objektzio horiek. Alegia, demokrazia, ogi zerutik etorria, bera dela soluzioa eta salbazioa suposatzen, eta ez politikoa soluzioak aurkitzeko tresna huts-hutsa<sup>55</sup> dela suposatzen. Izan ere, Euskal Herrian aspaldidanik problema bat dago, politikak noizpait soluzio bat eman beharko diona: printzipioz demokraziak soluzioa emateko ez dirudi beste edozein tresna baino txarragoa denik, eman nahi izanez gero. ETAz pentsatzen ez zuen eta bereziki antidemokratikoa ez zen B. Russellek, interesen edo balioen gatazka batek gizarteko taldeen artean topeka probokatzen duenero jokatzeko moduei buruz bi arau hauek ezartzen zituen: bat, erreforma politikoak egin eta egitura soziala premia berriei egokitu; eta bi, gizartearen berreziketa, egoera berrian bizitzeko ikasteko<sup>56</sup>. Zentzu komunaren arrazoiaketa besterik ez da, pentsaera magikoren logikarekin piska bat xokatzeko badu ere.

Elkarrizketa nortzuk, zertaz, etab., ez naiz sartuko. Aitortu behar dut, balioen gatazkei buruzko nire irakurketak ez direla izan propio indarkeriari buruzkoak; gehiago arduratu izan naiz garapen zientifiko modernoek (genetikak, etab.) gizartean sortzen dituzten gatazkez orain arteko uste tradizional filosofiko edo erlijiosoekin. Halere, irakurketa horietan balioen konfliktuei buruz oro har ikasi dudana gure kasuari ere aplikatzen ahal zaio hein handi batean. Elkarrizketaren mailaz behin eta berriro aurkitu dudana puntutxo bat jaso nahi nuke hemen batez ere: elkarrizketak ezin duela ez hondo eta ez muga gabekoa izan, zeruak eta lurra korrituz; edo beste era



batean esanda, alde batek ez daukala bestearen jarreraren azken oinarriak (ideologikoak, erlijiosoa) eta oinarrioz zuzentasuna auzitan jartzerik. Hori izan daiteke misiolari eta konbertitzaileen txit gustukoa; baina gizarte multikultural bat bestearen hautu fundamentalen errespetoan bakarrik euts daiteke. Abortoaz haren etsai katoliko batekin eztabaidatzen bada ezingo da honen fedea bera kuestionatu, nahiz eta azkenburuan fede hau beti dagoen haren perspektiba oinarritzen. Emakumeen beloa eztabaidatzen bada, ezingo da islama bera atakatu, etab. Izan ere, kasu bati buruzko erabakia dago jokoan eta ez (kristautasunaren, islamaren) balioa bera, balio ezberdin horien kasu konkretu baten aplikazioa baizik, sekula ez dena guztiz tartekogabea (balio edo azken printzipioetatik kasu konkretu honetaraino). Horregatik elkarrizketak H. M. Sassek "bitarteko" balio edo printzipioak deritzenetara mugatu behar du, azken printzipio eta balioak bakoitzaren kontzientziari utziz. H. Lübbeck, txit egoki, "diskurtsoaren mugaketarako arau pragmatikoak" finkatu beharraz mintzo da<sup>57</sup>. Pawlowski "guztiz" hoberenaren bilaketa landa utzirik "bigarren soluzio hoberena" bilatu beharraz ari da<sup>58</sup>, etab., etab. Uste dut, ikusi ditudan autore guzti-guztiek behin eta berriro diotela elkarrizketa aldeztu aurretik "desideologizatu", "zedarritu", urrutiko azken printzipioetatik hurbileko arauen mailara ekarri, "maila pragmatikoan" planteatu behar dela. (Erreforma sozial eta politikoen beharra ere ja denek aipatzen dute).

Kontraste gisa, adibide paretxo bat aipatuko ditut ea etxean ikusi zer ikusten dugun:

-egunero ikusten dugu, adibidez, EAJ/PNVri honelaxe atakatzeko zaiola: "zuek ere azken finean ETAkoek bezalaxe pentsatzen duzue!"; edo, berdin, ETAren kritiko sakon filosofiko batzuek: "azken finean abertzaletasuna da biolentziaren azken kausa!" (eta Arana Goiri bera ere errudun deklaratzearaino doa baten bat). Demokrata estrainio hauen gaueko sorginak ideiak dira! (Eta beren lumapuntako suaz nahi dituzte pentsamenduak eta sentimenduak berak pertsegitu eta kiskaldu inoren barru-barrueneraino). Alegia, horiek, beren perspektibatik, agian "zientzia" egiten dute, h. d., ez dute "axalgainean" geratu nahi, sakon-sakoneko azken kausak bilatzen dituzte... Hain azken sakoneraino bilatu ere, non kontzientziaren esfera pertsonala bortxatu eta demokraziaren mugak jo eta pasa egiten baitituzte. Ez daukate "mugen" zentzurik, klasiko batek esango lukeen bezala. (Egia da, demokrazia ez dela erraz ikasten, eta filosofo "sakon" batek nekezago). Izan ere, ohartarazten du H. Lübbeck, funtsean ez dakite bes-

tea/bestelakoa toleratzen; diferentzia bera funtsean, jasangaitza zaie; eta, azkenean, haren identitatea da erro-errotik ezabatu nahi luketena<sup>59</sup>.

Beste adibide arrunt bat: "ez dugu hitzegingo atentatua kondenatzen ez duten horiekin!". Noski, hitzegin nahi ez baduzu, ez egitea daukazu. Baina moralarekin horrek ez dauka behiala turkoekin eta protestanteekin edo razionalistekin hitzegin nahi ez zuen katolizismo espainolarekin baino zerikusirik gehiagorik<sup>60</sup>. H. M. Sassek, arrazoiz adina finitasunez, azken oinarrien arrazoiaketa pseudosakon hark, edo elkarrekin jardun ahal izateko exijitu nahi izaten den "azken oinarrietako adostasun minimo" honek<sup>61</sup>, demokrazia oso erraz biolatu eta intimitatearen esfera ukiezina nola inbaditzen duen ohartarazten digu<sup>62</sup>. (Ez da demokrazia oso delikatu gurea, ez).

Euskal Herri zoragarri hau gauza askotan benetan zora-garria da. Nola ari gara aboradatzeko gure indarkeriaren arazoa? Talaia-k berriki zenbaki bat atera du ezin interesgarriagoa eta, aldi berean,



ezin esanahitsuagoa, nik uste, gure egoeraren adierazgarri gisa: "Un diálogo sobre ética", J. M. Setién Gotzainaren eta F. Savater filosofoaren arteko elkarrizketa<sup>63</sup>. Hasteko eta bat, oso adierazgarria da, datoren tokitik etorrira, gai horrexekin eta pertsonaia horiexekin etortzea aldizkaria bere lehen zenbakiko erakuslehoan. "Kredo" tradizional zaharrak krisiak eraitsi zituen zero, jende pila bat ibili baita hemen horrelaxe denbora askoan, exker pinpirin, kristautasun progre baten eta estetizismo amoralaren artean dilindan, bietatik piska batez, ezertatik ez gehiegi, razionalitatea asko aipatuz eta gutxi definituz, baina arrazoiaren jabe seguru eta lasai, problemarik gabe. Savater eta Setién biak Euskal Herriko kultura berri horren ordezkari peto-petoak dira, biak uhin horren bozeramaile fidelak izan zitezkeen. Baina, horral, aurrez-aurre eserita, ez dute elkar ulertzen; ja ezertan ez dute kointziditzen, bi mundu elkartezin dira, bi mundutatik ari dira hitzegiten, bi hizkuntza. Elkarrizketaren muin-muinean indarkeriaren arazoa dago azkenean, gai konkretu eta gogor askoa. Baina hori eztabaidatzeko, enetzat, ezin interesgarriagoa izan da ikustea nola unibertso transzendental guztiak daukaten nolabaiteko eztabaidatu beharra, eta azkenean, hala ere, edo horregatixe, ezinezkoa den ezer eztabaidatzea. Balioespen konkretu batzuetan bat datoz, eta premisetan batere ados egon gabe egiten dute hori. Alegia, ez ditu arazoiketak elkartzen, zurrutotsik ez ateratzeko elkartzen dituen kultura berak baizik. Indarkeria gaizki dago noski (horretan biak ados) baina ez dakigu moralki dagoen gaizki, ala politikoki bakarrik dagoen gaizki eta moralki indifferente edo agian txalogarri. Morala

zer den ere ez dakigu; biek tesi diferenteak, kasik kontrarioak azaltzen dituzte. Gutxienez badakigu erlijioa zer izan den, hori oso gauza txarra zela. Eta elkarrizketa bukatzen da eta ez dago bien arrazoipi-deak josiko dituenik. Guk, ordea, urteetan biak josi ditugu batere problemarik gabe... (Gure arin-erriak mendeku hartu digu orain). Ez zegoen gure egoera erreala hobeto adierazterik.

### Kultura berri bat landu

Fronteen artean elkarrizketa behar da. Gizarte bizitza baketsua ahalduko duen instituzioen eta lurraldearen birrantolaketa behar da (Gizarte Itun Oinarrizkoa). Baita kultura edo jarrera berri bat, munduaren, historiaren, herikideen aurrean bizitzeko, eta geure buruaren aurrean. H. d., diferentziarekin bizitzen ikasteko. Erlatibismoarekin ere (intelektualki) seguru sentitzeko, ikaratu gabe.

Esan dugu, balioak gu (hizkuntza bezalaxe, pentsamendua bezalaxe) inguratzen gaituen tradizioan edo kulturaren aurkitzen ditugula, eta barneratu egiten ditugula. Orain arte kultura deitzen ari ginena, fedea esanenez orain (balio handien etzauntza, egia esan, erlijioa izan ohi da gehiengotan), edo agian hobe, kontzientzia. Balio baten baliaagarritasuna norbere kontzientzian dago, norbere pentsamenduan. (Gure pentsaerak egiten du ongia eta gaizkia dio Hamletek: "for there is nothing either good or bad, but thinking makes it so"). Euskal Herrian ez dugu izan subjektibitatearen edo kontzientzia autonomoaren tradizio handirik historian (Modernitatearen tradizioarik ez dugula esatea adinatsu da): Petrarca poesian, Descartes filoso-

fian, Lutero erlijioan, hots, kultura modernoaren hastapeneko Errenazimentuak izate ororen azken oinarri eta ekintza ororen iturri gisa finkatu duen Ni zoli menperagabe horren tradizioarik. Guri Elizak esan digu beti zer zegoen ongi eta gaizki, nola behar genuen jokatu, nola salbatu gure Ni edo arima. Balioak kontzientzian daudela edo balioak subjektuak ipini dituela entzunez gero, goardian jartzen gara, gure balio-txuok ukatu edo deusbaliatu egin nahi dizkigutelakoan, eta balio-txuokin batera gu geu. Artea subjektiboa izatea, bale. Baina Zuzenbidea, gure askatasuna, gure borroka, bizitzaren balioa, Giza Eskubide Naturalak beraiek (ez dago torturatzerik!), Euskal Herriaren eskubide nazionalak ere bai, ezin onar genezake dena "erlatibizitatea" eta airean uztea. Agindu eta debeku moralen, politika ororen, zientziaren beraren euskarri bakarra giza kontzientzia dela sostengu makalegia iruditzen zaigu hain ardurazko gauzentzat mundu honetan. Gure mentalitate milurtez katolikoak horientzat leku seguruago bat behar izaten dizu. Oinarri sendoagoaz nahi ditugu gure errebindikazio politikoak. "Razionalagoa" eta funtsatuagoa da gure morala (emakumeak beloa eramatera obligatzen dituzten islamdar horiena ez bezala, esate baterako: horiena bai, moral historiko-soziala da). Eta gure imajinazioan beharbada gizateria anonimo baten kontzientzia etereo isurkorra baino sendoagoa da Moisesen harrizko taula bat. Gure eskubide historikoak, Gernikako Juntetxean edo, armairu zaharren batetan daude seguruena (egia da, inoiz ez gine-la horixe pentsatzera jarri), larruzko pergamino batean gordeta.

Baina gauza objektibo eta seguruak dira derrigor...

Objektibo eta seguruak bai, baina kontzientziaren emaitza objektibo eta seguruak hain zuzen. Ez daukate beste etorkirik ez egonlekurik gure kontzientzia hauskor, erlatibo hauxe baino. Aski dute, ordea, hor timko ego-tea aski tinkoak izateko eta beren razionalitatea aski objektiboki garatzeko. Gure esku dago, beraz, balioen mundua; guk munduan hartzen dugun jarreraren menpe dago, gure hautapenen, gure gogoaren edo kontzientziaren menpe. Bide bat ala besteren artean arrazoiak haztatu, azkenean zio absoluturik ez baita egongo, arriskatu eta hautatu egin beharko dugu. Handik aurrera, Descartesek zioen tinkotasun absolutuz<sup>64</sup> jokatu beharreko abentura hasten da: giza bizitza den abentura etiko, politiko, humano... Bizitza, norbere askatasunaren gainean, eze-rezaren gainean bezala, eraikitzen da (behialako terminologia existentzialista da hau). Ezerezaren lekuan bakoitzak ipintzen dugun fedearen gainean, alegia. Handik aurrera balioen razionalitatea egin egiten dieguna izanen da. (Ezerk ez du beste razionalitaterik egiten dioguna baino! Beste "objektibismo" guztiak metafisikaren hondar platonikoak dira). Horregatik balioek historia daukate eta geu gara haien historiaren erantzuleak, hori da erabakiorra. Eta horregatik kontzientziak berak ere historia dauka<sup>65</sup>. Bere burua deskubrituz doa, balioak ere deskubrituz. Guretzat absolutuak diren balio batzuk ezezagunak ziren atzo; Erdi Aroan absolutuak ziren asko bazterturik dauzkagu gaur. Une historiko batean gutxiengo

batek profetikoki aldarrikatzen zituenak ("subjektiboak") gizarte osoarentzat fundamentalak bilakatu dira denborarekin (tolerantzia)... Ez da beti pentsatu gizaki batzuen esklabotza esku-bide naturalen aurkakoa dela: Aris-totelentzat batzuk libre eta besteak esklabu izatea da naturala (bera librea zen noski). Gaur, deklarazioz bederen, Giza Eskubideak absolutuak eta eztabaidea ezin dira, h.d., giza eskubideak (eta horien naturaltasun aitortza) kontzientzia kolektiboaren egungo erari edo egungo kulturaren eskakizun arrunt bati dagozkio, objektiboko arrazoikoak dira...

Gizakia bere burua egiten duen abere gisa ulertu behar dugu. Ezin da ulertu ja (betidanik) egina dagoen aingeru bat bezala, haren barruan leudeke ja dohain denak eta pedagogikoki agerira ateratzea bakarrik faltako zen edo Jainkoak edo Naturak emaniko osotasunetik edozein "jatorrizko bekatugatik" (zibilizazioagatik, produzio tresnen jabego pribatu edo klase etenagatik, Foruen galeragatik) hondamendian jausia dago eta "birrrostea" falta da. Ez, historia gizagintzaren historia da. Gizata-

suna historiaren obra da eta historiaren eginkizuna. Kreaio etengabea da kontzientzia, eginez eginez doa. Argituz, finduz, sentiberatuz. Konkista bat eta artelan bat da kontzientzia. Eta kontzientziaren garapen halaxebeharrezko historikoaren kontsidero honetatik sentimendu edo emozio moralaren balioespen positiboago bat ere erdiets genezake. Adibidez atentatu baten aurrean sentitzen den izialdurarena, gaurko kontzientziaren alarma-zeinu bat bezala, eta itxaropen zeinu bat bezala orobat, agian egunen batez egungo sentimendu subjektiboari kontzientzia objektibo bat egokitu izango zaio, indargintzarik egotea alde zuzenetik irrazionala bihurturik edukiko duen kontzientzia zin-zinez. Uste dut honez gero horrek izan behar duela biolentziaren inguruko planteamendua: ez, zilegi da edo ez da ETaren indargintza? (erantzuna edozein izanda ere, asko ez digula balio ematen baitu); baizik, zer egin, ahalbait lasterren indargintza ezin dadin razionala eta legitimoa inola izan gure artean? (Ez, "bizitza sakratua da", inola ere egia ez dena, baizik: egin dezagun gure artean, sakratua izan dadila). Hori



<sup>1</sup> AZURMENDI, J., *Demokratik eta biolentoak*, Donostia 1997, 27.

<sup>2</sup> MARTINEZ GORRIARAN, C., "Los moralistas, los estúpidos y los asesinos", *Diario Vasco* 1998. 01. 31 MINA, J., "Horóscopo vasco", *El País*, 1998. 02. 08. UNZUETA, P., "Ambito de decisión", *El país*, 1998. 02. 12. JUARISTI, J., "La sublimación de la desdicha", *Archipiélago* 32, 1998, 94.

<sup>3</sup>"Ma seconde maxime était d' être le plus ferme et le plus résolu en mes actions que je pourrais, et de ne suivre pas moins constamment les opinions les plus douteuses, lorsque je m'y serais une fois déterminé, que si elles eussent da gurre erronka.

été très assurées" (DM, Ille Partie).

<sup>4</sup>"Travillons donc à bien penser: voilà le principe de la morale", dio Pascalek. "Berma gaiten beraz ongi pentsatzen: hori da zuzenbidearen has-tapena", Narbaitzen itzulpenean (*Gogoetak* 347).

<sup>5</sup>Alegia, biolentzia justifikatzen da funtsean bietan oso antzera eta azkenean biak elkarri oratuta: etikoki, ezinbestekoa omen delako; politikoki, bestela Euskal Herriak zer eginik ez omen daukalako. (Eta, ene ustez, demokrazia hau, alegia, Alderdiak, Gobernuak, prentsa eta abar: dena) ez da gutxi ahalegintzen ari erraztasun guztiak ematen justifikazio bietarako, frankismoa

be z a l a x e .  
Honek, baliospena baino konstatazio soil bat izan nahi luke).

<sup>6</sup>Biolentzia politikoki ongi dagoeneko hipotesian ere, norbere errugabetasuna sakrifikatu eta moralki "errudun" bihurtzeko moraltasun sakona exijitzen baitzaio ekintzaileari horretarako, Max Weberen terminoetan jarduteko. (...) Andere Wertsphären bestehen, deren Werte unter Umständen nur der realisieren kann, welcher ethische <Schuld> auf sich nimmt. Dahin gehört speziell die Sphäre politischen Handelns". Ik. WEBER, M.,

"Der Sinn der <Wertfreiheit> der soziologischen und ökonomischen Wissenschaften" (1917), in: *Gesammelte Aufsätze zur Wissenschaftslehre*, Tübingen 1968, 489 eta hurr.

<sup>7</sup> Ik. ZUBIZARRETA, I., "Demokratik eta biolentoak", *Egunkaria* 1997. 12. 05. "Bortxakeriaren kontra egotea norberari barruak eskatzen dizkion bizpahiru oinarrien artean jarriko nuke nik, eta horregatik helburuen aurretik eta gainetik dago niretzat".

<sup>8</sup>"Gesinnung", konbentzimendu bezain ongi itzultzen da sentimendurenkin: beraz, sentimenduaren etika esan genezake orobat.

<sup>9</sup>RUSSELL, B., *Fundamentos de filosofía*, Barcelona 1975, 487 (FF).

<sup>10</sup>RUSSELL, B., *Ensayos filosóficos*, Madrid 1982, 32.

<sup>11</sup>Arrazoi honek hainbeste formulazio aurkitzen ditu egunotan ("venga de donde venga..."), Gotzaien eta eliztarraren nahiz kolore guztietako politikoen ahotan. Baina ik., adibidez, AULESTIA, K., "Demokratik eta biolentoak", *Argia*, 1998ko otsailak 1, 1657 zenb. "Noiz bai edo noiz ez da gaiztoa biolentzia? Urteak pasa ahala gaiztoa beti dela ohartzera iritsi naiz. Eta hau ez da kontsiderazio morala soilik. Kontsiderazio moral horretara iritsi banaiz aldez aurretik beste zerbaitez ohartu nintzelako izan da: indarkeriak ezer onik ez dakarrenaren ziurtasunarena hain zuzen".

<sup>12</sup>Ik. WEBER, M., "Politik als Beruf" (1919), in: *Gesammelte politische Schriften*, Tübingen 1958, 493 eta hurr. Ik. oin-oharrea aipatua ere.

<sup>13</sup>DILTHEY, W., *Izpiritu-zientziarako sarrera*, Bilbo 1959, 38.

<sup>14</sup>Ik. "Relativismus", in: RITTER, J.-GRÜNDER, K., *Historisches Wörterbuch der Philosophie*, bol. VIII, Darmstadt 1992.

<sup>15</sup>Ik. LALANDE, A., *Vocabulaire technique et critique de la philosophie*, Paris 1983: RELATIVISME. A) Doctrine qui admet que toute connaissance (ou toute connaissance humaine) est relative. B) *Relativisme moral. Doctrine d'après laquelle l'idée du bien et du mal varie suivant les temps et les sociétés* (sans qu'il y ait dans ces variations un progrès déterminé).

<sup>16</sup>Ib.: "RELATIF. (...) D) "Qui

dépend d'un autre terme, en l'absence duquel ce dont il s'agit serait inintelligible, impossible ou incorrect... Par suite, qui ne suffit pas à lui-même, qui n'est pas absolu (...). E) Qui ne peut être affirmé sans restriction ni réserve; qui n'est pas absolu. -Qui ne peut être qualifié (de bon, d'exact, de certain, etc.) que par comparaison avec la moyenne des choses ou des êtres de même espèce".

<sup>17</sup>AYER, A. J., *Lenguaje, verdad y lógica*, Barcelona 1984, 137.

<sup>18</sup>"Arrazoimen absolutuaren" ideia ez da gizatasun historikoari dagokion ezer, gizatasun "jainkozko" metafisiko bati baino. Honela dio H. G. GADAMERek, *Wahrheit und Methode*, Tübingen 1965, 260: "La idea de una razón absoluta en absoluto es una posibilidad de la humanidad histórica. Razón se da para nosotros sólo como una tal real e histórica; es decir, como una que no es dueña de sí misma, sino que depende siempre de lo ya dado, sobre lo que precisamente actúa" (J. HERNANDEZ-PACHECOren itzulpena, *Los límites de la razón*, Madrid 1992, 173).

<sup>19</sup>Moral, etika, edo etika, metaetika, era ezberdinetan egin ohi dituzte autoreek bereizketa hauek. B. RUSSELek (FF 482) honela egiten du: "No corresponde a la ética establecer las reglas efectivas de conducta, tales como, por ejemplo: "No hurtarás". Esto es asunto de la moral. A la ética le incumbe proporcionar una base de la que estas reglas puedan deducirse".

<sup>20</sup>AYER, A. J., *Ensayos filosóficos*, Barcelona 1979, 223-224.

<sup>21</sup>Ez da ahaztu behar, mendebaldeko tradizio teologiko, filosofiko, juridiko zein moral guztietan begiesten dela gerra justuaren kasua; beraz, hurko lagunen hiltze legitimoa "ibaiiaz bestaldean": Pascal harriarazten zuena. Hala zioen Don Quijotek (II, 27): "Los varones prudentes, las repúblicas bien concertadas, por cuatro causas han de tomar las armas y desenvainar las espadas, y poner a riesgo sus personas, vidas y haciendas: la primera, por defender la fe católica; la segunda, por defender su vida, que es de ley natural y divina: la tercera, en defensa de su honra, de su familia y hacienda; la cuarta, en servicio de su rey, en la guerra justa; y si le

quisiéramos añadir la quinta (que se puede contar por segunda), es en defensa de su patria".

<sup>22</sup>RUSSELL, B., *Ensayos filosóficos*, loc. cit., 32-33. B. Russellek arazo btxi hau kontatzen du Jainkoaren agindu oso ezagun horrekin: "Tomemos, por ejemplo, el precepto "No matarás". Todas las personas respetables creen, sin embargo, que esto no se refiere al caso en que el Estado ordene a una persona matar; por esta, entre otras razones, el Consejo de Educación de Nueva York rehusó hace poco sancionar la enseñanza del Decálogo en las escuelas", cfr. *Fundamentos de Filosofía*, loc. cit., 486.

<sup>23</sup>Ik. Ohar batzuk, AZURMENDI, J., "Santamariaren pentsamendu atariko", in: *Uztaro* 20 (1997) 61-76. H. M. PAWLOWSKY, "Weisen Werte den wahren Weg?", in: PUSTER, R. W. (arg.), *Veritas filia temporis? Philosophiehistorie zwischen Wahrheit und Geschichte*, Berlin-New York 1995, 284, informazio hauxe aurkitzen dut: Gerra Hotzaren urteetan eraso atomiko baten zilegizkotasun morala planteatu zenean, teologo katoliko aleman batek bizitza baino askatasuna balio sakratuago omen deneko arrazoiarekin baieztatu zuen hura. Eta, dena dela, arrazoi honekin ala gabe, mendebalde osoak onartua zeukan, Gobernuak zein gizarteek, premia etorri gero "komunisteei" eraso atomikoa egin egin beharko zitzaizela (moralki zilegi zela)! Santamariaren artikulua idatzi nuenean, oraindik ez nuen ezagutzen adibide polit asko hau. Gerora, orobat, H. M. Sassek beste arrazoipide hau bota du: bizitza benetan hain sakratua bada ez luke ezer kosta behar txoferren odolean alkohol toleratua zero eta gida-agirirako adin minimoa 28 urtetan ezartzea; horrekin bakarrik USAko gazteen hilgarritasun kuota %80 jaitsiko litzateke, cfr. SASS, H. M., "Methoden der Güterabwägung in der Postmoderne", in: BAUMGARTNER, H. M. -BECKER, W. (arg.), *Grenzen der Ethik*, Paderborn 1994, 65.

<sup>24</sup>"Bizitza sakratua" delako ikuspegiak gaur beharbada berriro mireslerik aurkitzen badu ere, Europa modernoan ez du itzal handia izan. Shakespearen *As you like it*-en (II, 1) badago biziera zibilizatuari uko egin dion pertsonaia

pitagoriko bat, hirietatik ihesi basoan bizi den arren, bizi ahaz zateko bere lagunek dagiten ehizari gaitziritzen diona basakeria delakoan: "we are mere usurpers, tyrants, and what's worse,/ To fright the animals and to kill them up/ In their assign'd and native dwelling-place". Pertsonaia hori paper barregarri samarra bada obra horretan, are barregarriagoa *What you will*-eko (IV, 2) beste pitagorikoa: "-What is the opinion of Pythagoras concerning wild fowl?- That the soul of our grandma might happily inhabit a bird". Esango nuke, alegia, gaur norbaitek bizitzaren sakratutasun pitagorikoa arrazoizkotzat badu ere, seguruenik ja ez duela oso arrazoizkotzat edukiko uso bat jenez bere amonaren arima jateko arriskua.

<sup>25</sup>FF 483.

<sup>26</sup>WINDELBAND, W., *Lehrbuch der geschichte der Philosophie*, Tübingen 1980, 580 (orig.:1892).

<sup>27</sup>STEMMULLER, W., *Hauptströmungen der Gegenwartsphilosophie*, Stuttgart 1969, 277-278.

<sup>28</sup>Ik. FRONDIZI, R., *¿Qué son los valores?*, México 1968.

<sup>29</sup>Ik. eztabaida horretako testu bilduma, SCHELZ H. (arg.), *Die Tyrannei der Werte*, 1979.

<sup>30</sup>H.M. Pawlowskik (aip. art., 285-287) aspektu hau biziki azpimarratzen du, Max Weberen "politeismoa" gogoratu eta hau Jainkoaren irudirik (idorlorik) egiteko Moisesen debekuekin erlazioan ipiniz (2 Mos., 32: eta halaber Koranean 2. Sura, bertset 52 eta hurr.). "Geth es aber um Gemeinde und Gemeinschaft -also um den Raum, in dem sich Verpflichtungen auswirken-, dann führt die Orientierung an verdinglichten Werten von dem wirklichen Leben ab. Die unpersönlichen Mächte, von denen Max Webwe sprach, gewinnen Gewalt über unser Leben und zwingen uns in ihre ewigen Kämpfe". Kontzientziaren libertateak "Jainko libre" bat galdatzen du.

<sup>31</sup>Ohere pertsonalaren komertzializazioa, adibidez, praktika juridikoak berak berretsia: Europako Estatu modernoetako Legerietan orain (lehenago ulertezina izango zena) norbaiten ohore laidotuarengatik diru konpentsazioa baten zigorra guztiz bidezkotzat jotzen da.

<sup>32</sup>HEIDEGGER, M., *Holzwege*,

1950, 209 eta hurr. ID., *Einführung in die Metaphysik*, 1953, 131 eta hurr.

<sup>33</sup> Ez da beria gure artean. XIX. mendean jada, kritikoez *Paz en la guerra* nobelari karlistas aski beltz pintatu ez izanagatik eman ei zioten tratuz, honela mintzo da Unamuno: (berak ere, antropologoaren antzera) "llevaba yo unos años estudiando la vida íntima de mi pueblo vasco y el alma de la aldea vascongada y la guerra carlista. Y dos años después, en 1897, publiqué mi primera novela, *Paz en la guerra*, en que... intenté mostrar algo de la intrahistoria de mi pueblo (...). Quise expresar lo que había visto de la vida íntima del pueblo que en aquellos sucesos se manifestó. Y no faltó quien me llamara carlista porque en vez de estrupir en imprecaciones y maldiciones contra los partidarios de Carlos VII y hablar de los crímenes del carlismo y otras majaderías de la misma frasca, me propuse ver y hacer ver serenamente lo que el carlismo encierra en sus redaños y la útil y poderosa fuerza que es. Es necio execrar de un río que se sale de madre y arrasa cuanto encuentra en la ribera: lo cuerdo es encauzarlo y donde se despeña poner una presa y montar una aceña para aprovechar el salto de agua", cfr. En torno al *casticismo*, Madrid 1986, 16.

<sup>34</sup> Batez ere beraiek inoiz biolentzia onartu zituztenek (eta ez ahantzi, biolentzia razionalki "ezinbesteko" medio bezala bakarrik onesten dela) hisiatuenak ditudite orain hura razionalki erabat inposibleztat jo nahian. Norbaitek hori "sentitzea" guretat ez da problema (inoren problema biografikoak bereak dira). Problema, iragaitza hori intelektualki esplikatzea da, urratsez urrats: moraliki ezinbestekoa da-tik moraliki ezinezkoa da-ra. Formula absolutuek (berdin da: "biolentzia ezinbestekoa da" edo "biolentzia justifikazina da"), ez baitute gradurik eta salbuespenik onartzen gizakiaren lan horietan, beti dute eztabaida zaila eta ondorioz, froga oso zaila (baina zergatik sentitzen du inork absolututasun horren beharrik, gurea den bizitza kontingentean eta jokamoldean aski seguru sentitzeko, jainkotxo bat sentitu gabe ere?) eta horregatixe, batetik besterako trantsizio razionalak orobat (gradualak, gradurik ez omen dagoen tarte batean)

oso-oso zaila dauka izan beharra. Zein izan dira batetik besterako urratsak ibilbide logiko batea? Ala, ez agian justifikatu gabekotzat, baina funtski irrazionaltzat eduki behar dira, mutur batetik besterako eboluzio intelektuallik ezin izan diren "eboluzio" horiek, absolututik absolutu kontrariora?

<sup>35</sup> Bizitzaren balioa (gorena izan beharrik gabe) benetan bai funts-funtsezkoa eta paregabea, oinarri-oinarrikoa, espresatzeko ez dago formula metafisiko edo sasierlijosoetara zertan jo. Askari da xume-xumeki errapatzea, Kantek egiten duen bezala, hura gabe beste balio guztiak deus ez direla, beste guztiak zinezkoak izateko oinarria bera dela, edo "gure esperientzia guztien erlazio sistema guztiari, balioen inportantziari, azkena jartzen dio guretzat. Horregatik Estatuarentzat hiritarren bizitzaren defentsa balio gorena da: hiritarrentzat beraiztat, ez. Baina Estatuaren azken helburua hiritarren ongizatea da: hiritarrena, ez (edo, ez derrigor).

<sup>36</sup> Interpretazioaren kasuaren antzekoa da nolabait. Bertso baten, testu edo arte obra baten interpretazio oro da erlatiboa, baina ez arbitrarioa: azkenean interprete bakoitzak bere interpretazioa egiten du, baina interpretazio literario, juridiko, estetikoaren arau objektiboak badaude, iruzkinaren baliagarritasun erlatiboa (ez absolutu eta behinbetikoa), halere (zeinbere komunitate zientifikoko eskakizunen arabera) objektiboa egiten dutenak.

<sup>37</sup> RUSSELL, B., FF, 484: "Históricamente, la virtud consiste en un principio en la obediencia a la autoridad, ya sea a los dioses, a la del Gobierno o a la de la costumbre". Miranderen obran ezohikotasun edo desobediencia hauxe da gai nagusia.

<sup>38</sup> Ib., 487-488: "UN procónsul romano o angloindio definiría la virtud como obediencia al código moral de la comunidad a la que un hombre pertenece. In hombre debiera siempre obedecer al código moral de su tiempo, lugar y credo, sin tener en cuenta hasta qué punto difieran los códigos morales.

Un mahometano, por ejemplo, no sería considerado como un malvado porque practicara la poligamia, pero un inglés lo sería aun cuando viviese en un país mahometano. Esta doctrina hace de la conformidad social la esencia de la virtud: o, como Hegel, considera la virtud como obediencia al Gobierno".

<sup>39</sup> Asko-asko ez duela, demokraziak "jendilajearren kale-nahasketak" esan nahi omen zuenean, Baudelaire poeta finak ez zietueb "demokrazia deritzon aberrazio hori" eta katuaq maite, ez ei dituzten "demokrata bulgareak" deus maite (katuaq elegantzia adierazten du, luxuaren ideia errebelatzen du, garbitasun eta lizuntasunarena). Izutzeoak dira poliziak Parisen egurtzen zituen manifestazioek merezi izan zuten Baudelairen berbak: "¿Han experimentado ustedes cuando su curiosidad de paseante les ha metido en una algarada, la misma alegría que yo al ver a un guardián del sueño público (policía o municipal, el verdadero ejército) maltratar a un republicano? Y como yo, ustedes se habrán dicho en su corazón: "Maltrata, golpea un poco más fuerte, aporrea, aporrea, municipal de mi corazón: porque en ese aporreamiento supremo, yo te adoro, y te juzgo semejante a Júpiter, el gran justiciero. El hombre a quien tú golpeas es un enemigo de las rosas y de los perfumes, un fanático de los utensilios: es un enemigo de Watteau, un enemigo de Raffael, un enemigo encarnizado del lujo, de las bellas artes y de las bellas letras, iconoclasta jurado, ¡verdugo de Venus y de Apolo! El no quiere trabajar, humilde y anónimo obrero, en las rosas y en los perfumes públicos: quiere ser libre el ignorante, y es incapaz de fundar un taller de flores y de perfumes nuevos. ¡Aporrea religiosamente los onoplatos del anarquista!" (orain, poetak ere ja ez dira hain poetak, laburrago eta prosaikoago, "faxistak" esaten da soil-soilik, eta ez da gehiago behar), cfr. BAUDELAIRE, *Obra poética completa*, Barcelona 1977, 17. Poeta intelektuallak, txukuntasuna, ideien edertasuna maite du. Perfumeak eta loreak. Alegia, historia- ren konkistak, ez haren borroka.

<sup>40</sup> RUSSELL, B., FF, 492-493.

<sup>41</sup> Ib., 494.

<sup>42</sup> AZURMENDI, M., *La herida patriótica*, Madril 1998, 131-145.

<sup>43</sup> WEBER, M., "Politik als Beruf" (1919), in: *Gesammelte politische Schriften*, Tübingen 1958, 493 eta hurr.

<sup>44</sup> CORTINA, A., *La ética de la sociedad civil*, Madril 1995, 47. "Consiste el politeísmo axiológico en creer que las cuestiones de valores, y por supuesto las cuestiones de valores morales, son "muy subjetivas", que en el ámbito de los valores cada persona elige una jerarquía de valores u otra, pero la elige por una especie de fe o corazónada (...). De ahí que cada quien opine como quiera y resulte imposible llegar racionalmente a un acuerdo intersubjetivo".

<sup>45</sup> Ik. M. Weberen adierazpen konfundiezinak, in: "Der Sinn Wertfreiheit der soziologischen und ökonomischen Wissenschaften", loc. cit., 503-511. "Weit entfernt also, dass vom Standpunkt der Forderung der Wertfreiheit empirischer Erörterungen aus Diskussionen von Voraussetzung aller nützlichen Erörterungen dieser Art" (or 504). Ik. orobat LÜBBE, H., "Sind Normen methodisch begründbar? Rekonstruktion der Antwort Max Webers", in: OELMÜLLER, W. (arg.), *Materialien zur Normendiskussion*, bol. L, Paderborn 1978.

<sup>46</sup> Ik. L. Zubizarretaren eta K. Aulestiaren aipatu testuak ("Emaidazue arrazoiren bat armak utz ditzadan!, esaka ari dela dirudi, onenean, biolentoa": K. Aulestia). Enezat abiapuntu bakarra gaur hau da: Orain ez gaude biolentziako bidea hasi bai ala ez eztabaidatzen. Eztabaida hori egin zen, zuzen ala oker (eztabaida morala, efikaziarena, etab.), eta jende batek biolentziaren alde erabaki zuen (du). Orain galdera bakarra, guztiontzat, egoera hau nola gaudituz da. Eta seguruenik argudiaketa absolutista batzuek (agian biolentzia hasi aurretik -gutxienez balazta gisa- zerbait balio zezaketenek eta zentzurik izan zezaketenek) orain ez dute ezertarako balio, gizartean daukagun etena gaintitzea bilatu behar du, ez haren sorrera ekiditzea. Enezat, bada, intelektualki komodoa bezain alferrikakoa da gaur biolentziako egoeratik "kanpo", posizio absolutu atakaezin batean kokatzea ("Ongian", eta jada ez gure historian). Orain dramaren barrutik bilatu behar da eta arrazoitu behar da.

<sup>47</sup> Biolentziaren justifikazioa ez da

ematen eta ezin da inoiz eman, batek arrazoi absolutua duelako eta besteak absolutuki arrazoirik ez batera. Baina arrazoi absolutua ez edukitzeak ez du esan gura arrazoi aski ez edukitzea (alde baterako zein besterako).

<sup>48</sup> AYER, A.J., *Lenguaje, verdad y lógica*, loc. cit., 135-136.

<sup>49</sup> PAWLOWSKI, H.M., aip. art., 287-288. Pawloswskik, Lutero aipatuz, Estatuaren egitekoa hiritarran ongizatea dela, ez haien salbazioa, alegatzen du, hots, kondizio sozialen legezko arauketa justua, ez arimen gida edo kontzientzien kontrola.

<sup>50</sup> AYER, A.J., *Ensayos filosóficos*, loc. cit., 213 eta hurr.

<sup>51</sup> Ez nuke hau adiera utilitaristan ulertzea nahi. Baina orain argitasun gehiagotan luzatzerik ere ez daukagu, adarretatik joan gabe.

<sup>52</sup> Ik. J.M. CABOIRAS, "Distensiones o distorsiones en el actual conflicto vasco: Dudas en torno al análisis de las repercusiones económicas del fenómeno de la violencia" (argitaratzeke).

<sup>53</sup> AYER, A. J., loc. cit. 241-242.

<sup>54</sup> Honekin ez da baztertzen norbait oso postura tinkoa edukitzea berak pertsonalki biolentzia ororen edo biolentzia batzuen aurka: bere hezkuntzagatik, erlijioagatik, etab., bere hautu pertsonalagatik, azken finean. Ez da auzitan jartzen postura honen printzipiozko arrazoizkotasuna ere. Auzitan dagoena da, postura hori (postura pertsonal bezala guztiz onartzekoa) zein modutan eta neurritan unibertsalgarritzat daukagun, eta jarrera razionalena bezala edozeini edozein kondiziotan exigitzea ahalgarritzat al daukagun; h. d., unibertsaltasun absolutu bat ("biolentzia oro") arrazoizko eta posibletzat ala daukagun biritza pertsonalean bezala politikan eta mundu guztian ere. Hala ez bada, kasuaren eztabaida beharko da. Eta ikusi dugu eztabaidarekin zer gertatzen zaigun.

<sup>55</sup> Egitura eta biziera politiko guztia (Estatu edo Boterea, zentzu zabalena; demokrazia ere bai ondorioz) legitima lezakeen gauza bakarra dago, eta "Gizarte Ituna" da hori, termino klasiakoetan. Baina hori ez da hor (Konstituzioan edo ) kosifika geneza-

keen ezer, demokraziaren fetitxista batzuek egin nahi dutela ikusten ari garen bezala, praxi politikoaren (eta, beraz, Konstituzioarena orobat) apriorizko "ideia erregulatzaila" baino, kenten berbetan esateko (funtsean Rawlsek antzera arrazoitzen duen puntu batean). (Ik. "Über den Gemeinspruch: Das magin der theorie richtig sein, etc.", *Kants Werke*, AA, VIII 297). Eta politika ororen apriori horrek, lege oro, baina batik bat gizarte politiko osoaren funtsezko oinarriak, ahalik eta gehien (teorian guzti-guztien!) adostasun osoa erdiesten ahalegiteko obligazioa ezartzen du. Estatuaren teologian ez bezala, Estatuaren filosofian gizarteko arazoan soluzioak dira haren justifikazio bakarra. Ez dago Estatuaren edo Boterearen beste legitimizazio razionalik. (Teologiko-metafisikoak edo autoritarioak dira besteak). Horregatik, gizartearen zati batek tematsu eta lehiatsa arbuizaten dituen oinarriko egiturak dauzkan Estatuak eta legitimizazio defizit substantzial bat dauka. Orduan, bietan bat: edo egitura horiek ahalik eta gehien exijentzietan egokitu egiten zaizkie, disidente taldearen exijentziak aintzat hartuz (hori da demokratikoa), edo behar-hiritar disidenteok egitura haietara "egokiarazten" dira (eta hori bortxaketa autoritarioa da, gehiengoaren adostasunaz izanda ere).

<sup>56</sup> RUSSELL, B., FF, 498: "Existen dos métodos principales conductores a este fin: primero, producir instituciones sociales bajo la cuales los intereses de los diferentes individuos o grupos choquen lo menos posible; segundo, educar a los individuos de forma tal que sus deseos armonicen entre sí y con los deseos de los demás".

<sup>57</sup> LÜBBE, H., "Pragatismus oder kunst der Diskursbegrenzung", in: OELMÜLLER, W.-DÖLLE-OELMÜLLER, R. (arg.), *Diskurs: Sittliche Lebensformen*, Paderborn 1995, 344-352. Lübbereen arrazoiketan diskurtso eremu pragmatikoki mugatu beharra ez da errealismoaren aginduagatik soilik ematen (denbora falta), ezpada (nolabait demokraziaren defentsan hain zuzen) presio uniformatzaile nagusia-